

TOKI ZUZENBIDEAREN EUSKAL BEHATOKIA (Azaroa, 2025)

ARAUGINTZAKO PROIEKTUAK

Diputatuen Kongresua:

- **Lege-proiektua, honako hauek partzialki aldatzekoa: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena, Europar Batasunaren zuzenbideko arau-haustearen ondoriozko kalteen zioz estatu legegileak duen ondare-erantzukizunaren gainean.**

Erreformak argitu egiten ditu ordaina emateko bideak, baldin eta Europar Batasuneko zuzenbidearen arau-haustea kalteak sortzen baditu EBJAren jurisprudentzian ezarritako baldintzen arabera kalte-ordaina jaso dezaketen partikularren gainean. Horretarako, Espainiako ordenamendu juridikoan zehaztutako ohiko bideak baliatzen ditu, eta guztiz autonomia den bide bat eskaintzen du aurkaratu ezin den administrazio-jarduerarik ez dagoenerako. Hartara, bermatu egiten da egintza hauek modu arrazoituan gauzatzea, kaltetuari zailtasun gehiegi eragin gabe. Erantzukizun-sistema zehatz honen eta bere baliabideen berezitasuna eta izaera osoa era egokian islatzeko, agindu zehatz bat dago Europar Batasunaren zuzenbidea urratzearen ziozko ondare-erantzukizunari buruz: urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32 bis artikulua berria.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-71-1.PDF#page=1

- **Lege-proiektua, legezko xedapen batzuk aldatzen dituen, hartara zerbitzu digitalen gobernantza demokratikoa eta komunikabideen antolakuntza hobetzeko.**

20 urte baino gehiago igaro dira 2000/31/EE Zuzentaraua onartu zenetik, eta, beraz, beharrezkoa zen bitarteko zerbitzu-emaleei aplikatu beharreko arau-esparrua berrikusi eta eguneratzea. Halaber, zerbitzu horiek mugaz gaindikoak direnez, nahitaezkoa zen arau horiek modu harmonizatuan egokitzea Europar Batasunaren eskalara.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-66-1.PDF#page=1

BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

- Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren Legeari buruzko dosierra

Iragan 2025eko uztailaren 1ean, lehenengo auzialdiko epaitegiak eta justizia-bulegoak martxan jartzen hasi ziren, biak ere Justizia Zerbitzu Publikoaren efizientziaren gaineko neurriei buruzko urtarilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoan aurreikusiak.

Justizia Ministerioak Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren Legeari buruzko dossier bat argitaratu du. Bertan, figura berriak jorratzen dira, bakoitzaren egiturak, eskumenak, funtzionamendua eta abantailak zehazten dira, eta ohiko galdera eta erantzun batzuk planteatzen dira.

https://www.mjusticia.gob.es/es/JusticiaEspana/NMOJ/Documents/Ley_de_eficiencia_DO-SSIER.pdf

- Europako Batzordearen txostena: 2014ko kontratazio publikoko zuzentarauek partzialki soilik betetzen dituzte beren sinplifikazio-helburuak.

Europako Batzordeak SWD(2025)332 lan-agiria argitaratu du. Bertan, 2014ko kontratazio publikoko zuzentarau europarrak ebaluatzen ditu –2014/23/EB, emakidei buruzkoa; 2014/24/EB, kontratazio publikoari buruzkoa, eta 2014/25/EB, sektore bereiziei buruzkoa–, ia hamarkada batez aplikatu ostean.

Txostenaren arabera, nahiz eta arauak barne-merkatuan gardentasuna eta harmonizazioa hobetu duten, ez dituzte guztiz bete sinplifikazioari, malgutasunari eta eskumen-igoerari lotutako helburuak. Aldeak daude, oraindik ere, estatu kideen artean, arau-konplexutasuna gehiegizkoa da, eta ETEen partaidetza baxua. Batzordeak dioenez, gainera, lege-mailan dagoen zatikatzeak –50 arau sektorial gehigarri baino gehiago– eta prozeduren geldotasunak zaildu egin dute sistemen efikazia.

Onorioz, Bruselak kontratazio publikoko arauen berrikuspen integrala planteatu du, inbertsio europarrean, berrikuntzan eta jasangarritasunean duen zeregin estrategikoa indartzeko, EBko lehiakortasun eta autonomia ekonomikoaren lehentasunen ildotik.

[https://ec.europa.eu/transparency/documents-register/detail?ref=SWD\(2025\)333&lang=en](https://ec.europa.eu/transparency/documents-register/detail?ref=SWD(2025)333&lang=en)

- HAC/1054/2025 Agindua, irailaren 22koa, eskulanaren eta materialen prezioen indizeei buruzkoa, armamentua eta ekipamendua ekoizteko horniduren material espezifikoaren prezioen indizeei buruzkoa, eta bidaiarien errepide bidezko garraioko osagaien prezioen indizeei buruzkoa, 2024ko laugarren hiruhilekorako, guztiak ere administrazio publikoen kontratuen prezioen berrikuspenei aplikatzeko modukoak. (2025eko irailaren 26ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/09/26/pdfs/BOE-A-2025-19087.pdf>

- Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren S/0011/23 Ebazpena.



Ebazpenaren arabera, Eólica del Alfoz enpresak ezin du Espainiako lurralde osoan sektore publikoarekin obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontraturik kontratatu parke eoliken eta horien ekipoen ustiapena, mantentzea, eragiketa, eraikuntza eta aholkularitza gauzatzeko, 6 hilabetez.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ekainaren 13ko 1/2023 Komunikazioa (lehia faltsutzearen ondoriozko kontratazio-debekua zehazteko irizpideei buruzkoa) argitaratu ostean hasi zen lehen espedientea izan zen.

Orain arte, Merkaturien eta Lehiaren Batzorde Nazionalak debekua aitortu eta Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordera igortzen zuen ebazpena, Ogasuneko ministroak zehaztu zitzaizkien haren iraupena eta irismena.

<https://www.cnmc.es/sites/default/files/6102006.pdf>

- 2025-2030 Plan Estrategikoa. Berrikuntza arduratsua eta duintasunaren defentsa aro digitalan

Plan honek hainbat helburu dauzka, eta horiek dira, printzipio gidari moduan, Agentziaren datozten urteetako norabidea gidatuko dutenak. Helburu horiek lortzeko hainbat jardueraren ardatz proposatzen dira, eta, horiek, era berean, zehatzak, neurgarriak eta lorgarriak diren neurriak jasoko dituzte.

<https://www.aepd.es/documento/plan-estrategico-aepd-2025-2030.pdf>

Artikuluak / Doktrina-azterlanak

- *Nuevo capítulo en la problemática que plantean los interinos y el personal laboral temporal en el empleo público*, Federico Castillo Blanco (acal-en argitaratua 2025eko urriaren 14an)

<https://www.acalsl.com/blog/2025/10/interinos-tjue-fijeza>

- *La expulsión de concejales en las sesiones plenarios*, Federico Castillo Blanco (acal-en argitaratua 2025eko irailaren 29an)

<https://www.acalsl.com/blog/2025/09/expulsion-de-concejales-pleno-municipal>



- ***La motivación en los cambios de forma de gestión de los servicios públicos locales***, Federico Castillo Blanco (acal-en argitaratua 2025eko irailaren 22an)

<https://www.acalsl.com/blog/2025/09/gestion-servicios-publicos-locales-externalizacion>

- ***Sesiones plenarias telemáticas o participación telemática de alguno de los miembros***, Eloísa Carbonell Porras (Acento Local blogean argitaratua 2025eko urriaren 8an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/sesiones-plenarias-telematicas-o-participacion-telematica-de-alguno-de-los-miembros/>

- ***Claves para una reforma del Gobierno local español: organización, competencias y financiación***, Núria Bosch Roca eta Maite Vilalta Ferrer (Acento Local blogean argitaratua 2025eko irailaren 24an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/claves-para-una-reforma-del-gobierno-local-espanol-organizacion-competencias-y-financiacion/>

- ***Cuarenta años de relaciones interadministrativas bajo la LBRL: balance de una arquitectura institucional compleja***, Juan Carlos Covilla (Acento Local blogean argitaratua 2025eko irailaren 17an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/cuarenta-anos-de-relaciones-interadministrativas-bajo-la-lbri-balance-de-una-arquitectura-institucional-compleja/>

- ***Y ahora, Segovia: urge simplificar el establecimiento de las zonas de bajas emisiones***, Javier Calvo García (Acento Local blogean argitaratua 2025eko abuztuaren 20an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/y-ahora-segovia-urge-simplificar-el-establecimiento-de-las-zonas-de-bajas-emisiones/>

- ***Procesos selectivos sin papeles. El caso de Madrid***, Óscar Cortés Abad (Acento Local blogean argitaratua 2025eko abuztuaren 6an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/procesos-selectivos-sin-papeles-el-caso-de-madrid/>



- **La mejora de la calidad democrática local: por un estatuto del electo local**, Tomàs Font i Llovet (Acento Local blegean argitaratua 2025eko uztailaren 23an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/la-mejora-de-la-calidad-democratica-local-por-un-estatuto-del-electo-local/>

Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruz

- **Los criterios de adjudicación con arraigo territorial en la contratación pública**, Fernando Luque Regueiro (Acento Local blegean argitaratua 2025eko urriaren 1ean)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/los-criterios-de-adjudicacion-con-arraigo-territorial-en-la-contratacion-publica/>

- **Las características medioambientales como criterio de adjudicación en la contratación pública**, Fernando Luque Regueiro (Acento Local blegean argitaratua 2025eko irailaren 27an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/las-caracteristicas-medioambientales-como-criterio-de-adjudicacion-en-la-contratacion-publica/>

- **La revisión de precios en los contratos de concesión del ciclo del agua**, Diana Antuña Valero (ObCP blegean argitaratua 2025eko urriaren 14an)

<https://www.obcp.es/opiniones/la-revision-de-precios-en-los-contratos-de-concesion-del-ciclo-del-agua>

- **La compra pública como instrumento de presión sobre Israel ante el genocidio en Gaza**, Carlos Alberto Amoedo Souto (ObCP blegean argitaratua 2025eko irailaren 26an)

<https://www.obcp.es/opiniones/la-compra-publica-como-instrumento-de-presion-sobre-israel-ante-el-genocidio-en-gaza>

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusia

- **1289/2025 Ebazpena**, 2025eko irailaren 18koa.

REINADECORAZONES CULTURA DE PROYECTOS SL enpresaren eskaintza onena zela adostu zen Next Generation EB funtsekin finantzaturako kontratu misto baterako lizitazio publikoko prozedura batean. Hala ere, enpresak eskaintza erretiratu zuela ulertu zen, ez zuelako epe

barruan aurkeztu esleipenaren aurretik eskatutako dokumentazioa. Ondorioz, esleipen-proposamena hurrengo lizitatzailari egin zitzaion, CULTURAL MEDIA DESIGN SLri.

Auzitegiaren arabera, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarriak eskatzen du epea jakinarazpena bidali denetik aurrera zenbatzeko hura egun berean argitaratu behar dela kontratugilearen profilean; baldintza hori bete ez denez, epea interesdunak jakinarazpena eraginkortasunez jasotzen duenetik aurrera kontatu behar da, baina ez zen hala egin. Beraz, babesgabezia-sortu, eta pleguen eta araudi aplikagarriaren gaineko errespetuaren printzipioa urratu zen.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%201153-2025%20clm%20102-2025%20\(res%201289\)%2018-09-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%201153-2025%20clm%20102-2025%20(res%201289)%2018-09-2025.pdf)

- 1207/2025 Ebazpena, 2025eko irailaren 3koa.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren Errioxako Probintzia Zuzendaritzak lizitazio publiko bat deitu zuen garbiketa-zerbitzuen kontratu baterako. Hasiera batean, BALLANDOSTRES SL enpresa proposatu zen esleipendun izateko, baina, ondoren, bere proposamena kendu egin zen, ez zuelako egiaztatu kaudimen ekonomiko eta tekniko propio gutxienekorik, beste enpresa baten (BALAN DOS TRES) kaudimenean soilik oinarritzen baitzen (azken horrekin partekatzen du administratzailea). Hori dela eta, kontratazioaren gaineko errekurso berezia jarri zen.

Ondorio horren oinarrian daude Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 75. artikulua, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia, eta doktrina administratiboa. Horien arabera, nahiz eta posible den kaudimena kanpoko bitartekoekin integratzea, lizitatzailak gutxieneko kaudimen propioa frogatu behar du kontratu bat egikaritzeko benetako gaitasuna bermatzeko, hartara saihestu egingo baita bitartekari edo pantaila huts gisa jardutea, kontratatze gaitasunaren eta gutxieneko kaudimenaren printzipioei jarraikiz (SPKLren 65., 74. eta 75. artikuluetan jasoak).

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200929-2025%20\(res%201207\)%2003-09-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200929-2025%20(res%201207)%2003-09-2025.pdf)

- 1087/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 18koa.

ROCHE DIAGNOSTICS SL merkataritza-etxea baztertu egin zen ospitale baterako erreaktiboak eta ekipamendua hornitzeko lizitazio publikoko prozedura batetik, ez zuelako bete berdintasun-plana lan-erregistroan inskribatu izanaren zenbakia aurkeztearekin lotuta egindako zuzenketa-errekerimendua (baldintza hori betetzeko eskatzen da kontratuaren pleguetan).

Baztertze oinarri moduan hauek azaldu dira: pleguak lotesleak dira “lex contractus” printzipioari jarraikiz, SPKLren 139. artikuluaaren arabera; lizitatzailaren betebeharra da klausulak erreserba barik betetzea; eta kontratazio-organoak legitimitatea dauka zuzenketa

eskatzeko, tratu-berdintasunaren eta gardentasunaren printzipioei jarraikiz, SPKLren 18., 44., 71. eta 140. artikuluen nahiz Auzitegi Gorenaren eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200655-2025%20val%20138-2025%20\(res%201087\)%2018-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200655-2025%20val%20138-2025%20(res%201087)%2018-07-2025.pdf)

- 998/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 2koa.

Colección Thyssen-Bornemisza Fundazioak lizitazio bat deitu zuen bere instalazioen garbiketa-zerbitzuak kontratatzeko. Lizitazio hartan, esleipen-irizpide batzuk ezarri zituen, prezioan eta beste helburu batzuetan oinarrituta, tartean ordu osagarriak kosturik gabe egiteko konpromisoa. ASPELeK, garbiketa-enpresen elkarte profesionala den aldetik, errekurso berezia jarri zuen pleguko hainbat alderdiren aurka.

Auzitegia SPKLren 145. artikulua interpretazioan oinarritu da bere erabakia hartzeko. Horren arabera, zilegi da pleguan zehaztutako prestazio osagarriak baloratzea, gehieneko mugarik ezarri beharrik gabe. Gainera, argudiatu duenez, kosturik gabeko orduen poltsa kontratuaren xedean sartzen da, eta ez da oinarritzko aurrekontuan islatu behar. Horrez gain, ikuskatzailearen esperientzia gehigarria irizpide egokia eta proportzionatua da araudi eta jurisprudentzia aplikagarriaren arabera.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200733-2025%20\(res%20998\)%2002-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200733-2025%20(res%20998)%2002-07-2025.pdf)

- 1055/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 10ekoa.

Fundación Internacional y para Iberoamérica de Administración y Políticas Públicas (FIAPP) izeneko fundazioak prozedura irekia deitu zuen software-lizentziak hornitzeko. Prozedura hartan, ALHAMBRA SYSTEMS SA enpresak eskaintzarik onena aurkeztu zuen, baina baztertu egin zen, ez zegoelako loturarik bere sozietatearen xedearen eta kontratuaren artean, eta, gainera, ez zuelako behar bezala egiaztatu kaudimen teknikoa. Ondorioz, kontratua INDRA SOLUCIONES TECNOLÓGICAS DE LA INFORMACIÓN SLU enpresari esleitu zitzaion. Hala ere, ALHAMBRA SYSTEMS enpresak errekurso berezia jarri zuen kontratazioaren gainean, bazterketa eta esleipena aurkaratuz.

Auzitegiak honako hauek baliatu ditu bere erabakiaren oinarri moduan: SPKLren 65. eta 66. artikulua (horien arabera, pertsona juridikoak beren sozietate-xedean sartzen diren kontratuen esleipendun izan daitezke soilik), eta 1502. artikulua (kaudimena eta gaitasuna egiaztatzeko zuzenketa-izapidea arautzen du), ezarrit zuzenketa-izapide bakar baten ostean zuzengaitza behar bezala egiaztatzen ez bada eskaintza baztertu egiten dela; gainera, zuzenketak bata bestean

atzetik egitea debekatzen duen doktrina aplikatzen da, berdintasunaren eta lehiaren printzipioak bermatzeko.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200815-2025%20\(res%201055\)%2010-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200815-2025%20(res%201055)%2010-07-2025.pdf)

Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea

- 4/2025 txostena, 2025eko uztailaren 17koa. Zerbitzu-kontratua, organismo kontratatzailearen lanpostuen zerrendetako lanpostu hutsen ezaugarri tekniko eta profesionalak dituzten giza baliabideen atxikipena jasotzen duena.

Posible da sektore publikoko erakunde batek zerbitzu-kontratu bat lizitatzea, zeinaren pleguetan enpresa esleipendunari eskatzen baitzaio bere lanpostuen zerrendan hutsik dauden plazek eduki ditzaketen ezaugarri tekniko eta profesionalak dituzten giza baliabideak atxiki ditzala, betiere bere xedean ez bada jasotzen enplegatu publikoei gordetako ahalmen publikoak baliatzerik. Ondorioz, egin beharreko prestazioak argi zehaztu beharko dira.

<https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2025/informe202504contratodeserviciosconrecursoshumanosconcaracteristicastecnicasyprofesionalesvacantesenlarpt.pdf>

- Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen gomendioa, Europako Erkidegokoak ez diren enpresek lizitazio-prozeduretan duten partaidetza eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 68. artikulua aplikazioa hizpide.

<https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2025/recomendacionjccpeinterpretacionarticulo68lcsp.pdf>

- 54/24 txostena, 2025eko uztailaren 3koa. Kontratatzeko debekua zuen pertsona fisiko batek eratutako sozietate bat kontratatzeko debekuaren eragina.

SPKLren 71.3 artikulua berez ez du kontratatzeko debeku berri bat arautzen; aitzitik, hasiera batean debekua duen pertsonari lotuta edo jarraitutasuna emanez beste enpresa batzuei ere eragingo dien debekuaren kasuak azaltzen ditu.

SPKLren 71.3 artikulua aplikatzeko organo eskuduna berau planteatzen duten kasuen arabera-koa izango da.

SPKLren 71.3 artikulua aplikatu ahal zaie aurretik kontratatzeko debeku bat jaso duten batzuen jarraipentzat jo ahal diren enpresei. Zehazki, administratzaile eta bazkide bakarra aurretik kontratatzeko debekua jaso duen pertsona fisiko bat deneko sozietatearen kasuan, baldin eta haren helburua bat badator debekua jaso zuen pertsona fisikoaren jarduerarekin, elementu horiek, printzipioz, aipatu artikulua aplikatu ahal izateko moduko zantzuak dira.

<https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2025/informe202454afectaciondeunapcaunasociedadconstituidaporpersonafisicaalaquepreviamenteseleimpusopc.pdf>

XEDAPEN ARAUEMAILEAK

Estatuko legeria

- Ebazpena, 2025eko irailaren 9koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen baita argitaratu dadila honako hau baliozkotzeko erabakia: 9/2025 Errege Lege-dekretua, uztailaren 29koa, Jaiotza- eta zaintza-baimena zabaltzen duena testu bategin hauek aldatuz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko (EB) 2019/1158 Zuzentarauaren transposizioa biribiltzeko (zuzentarau hori gurasoen eta zaintzaileen familia-bizitza eta lan-bide-bizitza bateragarri egiteari buruzkoa da, eta indarrrik gabe utzi zuen 2010/18/EB Zuzentarra): Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua. (2025eko irailaren 11ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/09/11/pdfs/BOE-A-2025-17999.pdf>

- 10/2025 Errege Lege-dekretua, irailaren 23koa, zeinaz presako neurriak hartzen baitira Gazako genozidioaren aurka eta palestinarren alde. (2025eko irailaren 24ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/09/24/pdfs/BOE-A-2025-18831.pdf>

- 865/2025 Errege Dekretua, irailaren 30ekoa, zeinaren bidez prozedura ezartzen baita Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorriari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren aurreko dantza-ikasketak, ondore guztietarako, lege horretan araututako goi-mailako dantza-ikasketen baliokideak direla aitortzeko. (2025eko urriaren 1eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/10/01/pdfs/BOE-A-2025-19415.pdf>

- 899/2025 Errege Dekretua, urriaren 9koa, Errepideen Araudi Orokorra onartzen duena. (2025eko urriaren 10eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/10/10/pdfs/BOE-A-2025-20206.pdf>

- Ebazpena, 2025eko urriaren 8koa, Diputatuen Kongresuarena, errege lege-dekretu hau bali-ozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 10/2025 Errege Lege-dekretua, irai-laren 23koa, zeinaz presako neurriak hartzen baitira Gazako genozidioaren aurka eta palesti-narren alde. (2025eko urriaren 15eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/10/15/pdfs/BOE-A-2025-20582.pdf>

- 916/2025 Errege Dekretua, urriaren 14koa, nekazaritza-politika bateratuaren arloko zenbait errege-dekretu aldatzen dituena. (2025eko urriaren 15eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/10/15/pdfs/BOE-A-2025-20583.pdf>

Euskal Autonomia Erkidegoa

- EDIKTUA, 45/2020 prozedura arruntaren ondoriozkoa, zeinaren bidez onartzen baita zati ba-tean deuseztatzea azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkun-tza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. (2025eko urriaren 17ko EHAA).

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/10/2504366e.pdf>

Arabako Lurralde Historikoa

- 32/2025 Foru Dekretua, irailaren 9ko Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea kon-tzejuetako errejidore eta bokalak hautatzeko prozeduran erabili beharreko gaiei eta inprima-kiei. (2025eko irailaren 22ko ALHAO)

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2025/107/2025_107_02703_E.pdf

- 513/2025 Foru Agindua, urriaren 13koa. Arabako Lurralde Historikoko kontzeju bakoitzeko biztanle kopurua eta datorren 2025eko azaroaren 23ko hauteskundeetan Administrazio Ba-tzarretarako hautatu beharreko kideen kopurua zehaztea. (2025eko urriaren 20ko ALHAO)

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2025/119/2025_119_03012_E.pdf



Bizkaiko Lurralde Historikoa

- Ahaldu Nagusiaren 179/2025 FORU DEKRETUA, urriaren 6koa, zeinaren bidez deklaritzen baita zein diren egun baliogabeak Bizkaiko Foru Aldundiaren eremuan 2026an zehar egin edo aurkeztu behar diren egintza, izapide edo errekurso guztietarako. (2025eko urriaren 13ko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2025/10/14/I-1066_eus.pdf

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

- 299/2025 Ebazpena, irailaren 24koa, Araubide Juridikoko zuzendari nagusiarena, Foru Sektore Publikoko kargudunen ondasun eta interesen adierazpenak argitaratzea agintzekoa. (2025eko urriaren 3ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/10/03/c2506700.pdf>

- 2020/2025 Foru Agindua, urriaren 14koa, gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzeko 2024-2025eko lehiaketa bateratua deitzekoa. (2025eko urriaren 16ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/10/16/c2507133.pdf>

Nafarroako Foru Komunitatea

Aldi honetan ez da jarduera arauemailerik egon.

BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEN TOKIKO EREMUARI BURUZKO LEGE- RIA

Kanarietako Autonomia Erkidegoa

- 3/2025 Lege Dekretua, uztailaren 25ekoa, Kanarietako Unibertsitate Sistemako Gizarte Kontseiluei eta Koordinazioari buruzko apirilaren 4ko 11/2003 Legea aldatzekoa. (2025eko urriaren 18ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/10/18/pdfs/BOE-A-2025-20901.pdf>

- 4/2025 Legea, abuztuaren 1ekoa, Kanarietako Pertsonen Errepideko Garraioa Antolatzeak maiatzaren 17ko 13/2007 Legea premiaz aldatzekoa. (2025eko urriaren 18ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/10/18/pdfs/BOE-A-2025-20902.pdf>

Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoa

- 4/2025 Legea, uztailaren 11koa, Administrazio Sinplifikazioari, Arintzeari eta Digitalizazioari buruzkoa. (2025eko irailaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/09/25/pdfs/BOE-A-2025-18966.pdf>

Extremadurako Autonomia Erkidegoa

- 2/2025 Legea, urriaren 2koa, hondamendi naturalen eragin berezia jasan duten ardi- eta gezezi-ustiategiei larrialdiko salbuespenezko laguntza ematekoa Landa Garapeneko Nekazaritzako Europako Funtsaren esparruan. (2025eko urriaren 18ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/10/18/pdfs/BOE-A-2025-20903.pdf>

Galiziako Autonomia Erkidegoa

- 2/2025 Legea, apirilaren 2koa, Galizian adimen artifiziala sustatzekoa eta garatzekoa. (2025eko urriaren 20ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/10/20/pdfs/BOE-A-2025-21026.pdf>

Madrilgo Erkidegoa

- 2/2025 Legea, ekainaren 25ekoa, zeinaz aldatzen baita Estatuak lagatako zergen arloan Madrilgo Autonomia Erkidegoak emandako lege-xedapenen testu bategina —urriaren 21eko 1/2010 Legegintza Dekretuaren bidez onartua—, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergen

hirugarren mailako ahaideei aplikatu beharreko hobaria gehitzeko eta dohaintzen gaineko zergan onura fiskalak eskuratzeko baldintzak sinplifikatzeko. (2025eko irailaren 30eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/09/30/pdfs/BOE-A-2025-19345.pdf>

JURISPRUDENTZIA

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

- Rimvydas Norkus abokatu nagusiaren ondorioak.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko (EJBA) abokatu nagusi Rimvydas Norkusek ondorioak argitaratu berri ditu mugagabe ez-finkoaren egoerari eta administrazioak berau finko bihurtzeko duen balizko betebeharrari buruzko epaiaren aurretik.

<https://curia.europa.eu/juris/document/document.jsf?jsessionid=41C72098817F7C6FAEF07B48F98C63CA?text=&docid=305033&pageIndex=0&doclang=es&mode=lst&dir=&occ=first&part=1&cid=2248189>

Konstituzio Auzitegia

- 134/2025 Epaia, ekainaren 10ekoa. (2025eko uztailaren 14ko BOE, 168. zk.)

Konstituzio Auzitegiak aitortu duenez, zentsura-mozioa zinegotzien ordezkari-funtzioaren eta partaidetza politikoaren eskubidearen funtsezko nukleoaren parte da, eta Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoaren 197.1.a) artikulua bigarren paragrafoak ezarritako muga, nahiz eta udalaren egonkortasunari eusteko eta transfugismoari aurre egiteko egokia eta beharrezkoa izan eta helburu bidezko bat bete, neurrigabea da aplikazio praktikoan. Gehiago indartu aldakorrak baldintzatu egiten du zinegotziak duen banakako eskubidea, kanpoko faktoreen arabera. Hori horrela, udalerrri txikietan edo konposizio politiko jakin bat dutenenetan mozioa eraginkortasunez ezartzea saihestu dezake, eta horrek blokeatu egiten du kontrol politikoko

funtsezko mekanismo bat. Ondorioz, urratu egiten da partaidetza politikoaren eta ordezkari-funtzioaren eskubidearen oinarria, gehiegizkoa den eta justifikazio objektibo aski ez duen murrizketa bat ezarri. Hori dela eta, Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoaren 197.1.a) artikulua bigarren paragrafoa Konstituzioaren aurka doala eta deuseztagarria dela aitortu da, eta, beraz, artikulua horretan bertan harekin lotuta dagoen tartekia ere. Epaitzak baietsi egiten du konstituzio-kontrakotasunaren gaia, aldaketa bat ezarri araua interpretatu eta aplikatzeko orduan, eta udal mailan politikan parte hartzeko eskubidearen gaineko murrizketen konstituzio-mugen gaineko doktrina ezarri.

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/14/pdfs/BOE-A-2025-14587.pdf>

- 148/2025 Epaia, irailaren 8koa. (2025eko urriaren 10eko BOE, 244. zk.)

Legearen aurreko berdintasunerako eskubidearen (jaiotzaren ondoriozko diskriminaziorik gabe) urraketa: Konstituzio Auzitegiaren 140/2024 Epaian konstituzio-kontrakotasunekotzat jotako legezko araudi bat aplikatzen duten ebazpen judizial eta administratiboak; aipatu legezko araudia konstituzio-kontrakotasunekotzat jotzen da, ez baitu aurreikusten guraso bakarretako familietako ama biologikoek, beren konturako langileak izanik, jaiotzaren ziozko baimena luzatu dezatela, beste guraskideari (halakorik balego) legokiokeen baimena hartuz.

<https://hj.tribunalconstitucional.es/docs/BOE/BOE-A-2025-20267.pdf>

Auzitegi Gorena

- (Jurisprudenzia-bilduma ofiziala: 3102/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 898/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 1ekoa.

Auzitegi Gorenak jurisprudenzia-doktrina moduan finkatu du arduraldi partziala duen bitarteko ordezkari-unibertsitate-irakaslearen figura subsumitu egin daitekeela irakasle elkartuentzat arauz ezarritako bateragarritasun-aurreikuspenean, irakasle elkartuaren eta arduraldi partzialeko bitarteko ordezkari-irakaslearen arteko antzekotasuna aitortzen baita, eginkizun, denbora eta helburuei dagokienez. Bestalde, unibertsitate-autonomiaren babespean, eta ezarritako legezko esparruaren barruan, unibertsitate bateko gobernu-organismoek barne-ondoreekin interpretatu dezakete irakasle elkartuaren pareko irakaskuntza-kategoria bat, Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritakoaren ondoretarako, baina erabaki horrek ez du lotzen irakaskuntza-bateragarritasunaren eskaizailleak lan egiten duen administrazioa, interpretaziozko irizpide bat izan daitekeen arren.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a5b2a21c8bc0d7dea0a8778d75e36f0d/20250710>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3146/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 895/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 1ekoa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina moduan ezartzen du arauz aurreikusitako konpentsazio ekonomikoa soilik aplikatuko zaiela aurreikusitako finkapeneko hirugarren hautaketa-prozesua gainditu ez dutelako administrazioarekiko harremana bukatu duten bitarteko funtzionarioei.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c5a992680684421ba0a8778d75e36f0d/20250710>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3255/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 901/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 1ekoa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina moduan ezartzen du administratzailea Merkataritza Erregistroan inskribatze hutsa ez dela aski sozietatearen zerga-arloko arau-haustearen zioz administratzailearen ordezkari erantzukizuna ondorioztatzeko, merkataritza-leggedian aurreikusitako betebeharrak buruzko erreferentzia orokor hutsa ez baita nahikoa administratzaile izan zenaren erantzukizuna aplikatzeko. Benetan gertatu zenaren azterketa zehatz eta puntuala egin behar da, interesdunak aldarrikatu dituen gai guztiei erantzunez, legezko aurreikuspenen erreferentzia hutsaz harago.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8d3b850296608ad8a0a8778d75e36f0d/20250717>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3259/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 902/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 1ekoa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina moduan ezartzen duenez, ofizioz edo aldeak eskatuta hasitako zerga-prozeduretan, zerga-administrazioak jakinarazpenak egiteko erabiliko duen bidea jatorrizkoa edo derrigorrezkoa den hori izango da, zergadunak edo haren legezko ordezkariak berariaz aipatu duten helbidean, batez ere horren menpe badago bere defentsarako eskubidea. Izan ere, interesdunek jakinarazpenak non jaso nahi dituzten adieraztea bera ez dago lotuta prozedura hasteko moduarekin (ofizioz edo aldeak eskatuta). Prozedurako interesdunen eskubidea da –ofizioz hasitako prozeduretan ere baliatu daitekeena–, eta, zalantzarik gabe, legezko berme guztiak dituen ordezkari bat eta jakinarazpenak egiteko helbide zehatz bat izendatzeko eragotzi egiten du izendapen horiek kontuan eduki gabe egindako jakinarazpenen baliozotasuna. Hala, horiek ez-eraginkor bihurtuko lirateke, kontrako interpretazioak edukirik gabe utziko lukeelako bai ordezkariak izendatzeko aukera, bai jakinarazpenetarako helbidea izendatzekoa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5f00b00889b58534a0a8778d75e36f0d/20250718>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3105/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 903/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 2koa.

Auzitegi Gorenaren arabera, aldi baterako enplegu-harremana iraupen luzekoa bada, bitarteko-izaera behartuta, bitarteko funtzionario horrek eskubidea du dagokion maila aitor dakion, karrerako funtzionarioen baldintza berberetan, Europako Esparru Akordioaren arabera, zeinak bermatu egiten baitu bitarteko eta karrerako funtzionarioen arteko diskriminaziorik ezaren printzipioa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d0d45ac74ae717f9a0a8778d75e36f0d/20250710>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3144/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 905/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 2koa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina moduan ezartzen du lanpostu bat hutsik dagoela ulertu ahal izateko (eta, hala, lan-eskaintza publikoan sartzeko), administrazio publiko batean iraupen mugatuko lan-kontratu baten bidez lanean ari den eta lan-arloko jurisdikzioaren epai irmo bidez “ohiko eta mugagabeko” lan-harreman gisa kalifikatu den (itundutako iraupenaz harago luzatzeagatik) langilea “mugagabearen” sailkapenaren barruan sartutzat jo behar dela, eta, beraz, ez-finkotzat. Ondorioz, bere lanpostua hutsik geratuko da, eta deialdi batean sartu beharko da bete dadin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/fc9d11029eabe20aa0a8778d75e36f0d/20250710>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3167/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 904/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 2koa.

Auzitegi Gorenak ezetsi egin du jarritako errekurtsoa. Hala, berretsi egin du estatu legegilearen ondare-erantzukizunaren ondoriozko kalte-ordainaren eskarien ezespena, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari lotuta. Izan ere, konstituzio-kontrakotasuneko aitortpen batetik ondorioztatu daitekeen arren aplikagarriak diren egintzen ziozko kalteak zuzenbidearen aurkakoak direlako presuntzioa, berez presuntzio hori ez da absolutua, eta hutsaldu egin daiteke kasu zehatzetan gertatzen diren inguruabarren zioz (kasu honetan bezala). Bada, ez dago errekurtsogileak defendatu duen automatismorik, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ondorioztatzen duenik zerga ordaindu izanagatik bakarrik, kontuan hartu gabe aldez aurretiko prozesu batzuk daudela, eratorritako konstituzio-doktrina aintzat hartu zutenak eta zerga-egitatearen frogatik bat antolatuta ahal izan zutenak, eta horietan ez zela antzeman ondare-errealitaterik, zergapean jarritz gero

gaitasun ekonomikoaren gaitasunaren kontra egiten zuenik. Prozesu honetan, froga aski ez da goela ondorioztatzen da baita kaltearen eraginkortasuna eta zenbatekoa zehazteko orduan ere, ezin baitira inguruabar horiek aurreikusi, errekurso-prozedurarik eza alde batera utzita.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e7855f11c9892f0ea0a8778d75e36f0d/20250710>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3176/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 907/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 2koa.

Auzitegi Gorenaren arabera, Tokiko Ogasunen Legearen testu bategineko zeregin batzuk ordenamendu juridikotik kanporatzeak, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren oinarria zehazteari lotuta, ez du nahitaez eragiten zenbateko jakin batzuk ordaintzea zuzenbidearen kontrakoa denik edo zenbateko horiek, baliokidetasun bidez, kalte eraginkorra osatzen dutenik ondare-erantzukizunaren ikuspegitik. Zerga-antolamenduan ezarritako frogabideen bidez egiaztatu behar da zerga-egitatea ez dela gertatu, edo zerga-egitatearen zenbatekoa ez dela Administrazioak zenbatespen objektiboko metodoarekin ezarritakoa, edo aplikatutako kalkulu-arauak okerrak zirela, likidazio-aurkaratze egokiaren bidez.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2cd3fd32bfc72533a0a8778d75e36f0d/20250710>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3358/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 919/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 3koa.

Auzitegi Gorenak aitortzen duenez, Parke Nazionalen Sarerako ezarritako zuzentarauak autonomia-erkidegoei zuzendutako oinarritzko zuzentarauak ere badira, eta kontuan hartu behar dira beren eskumeneko espazio naturalen gaineko plangintza-ahala baliatzean. Zonifikazio-irizpideak oinarritzko zuzentzarau horien parte dira, hala aurreikusten baita, berariaz, araudi aplikagarrian. Gainera, irizpide horiek, beren horretan, funtsezko osagaitzat jotzen dira babestutako naturaguneak planifikatu eta kudeatzeko, eta horixe izan behar da administrazioaren diskrezio-ahalaren eremua baliabide naturalen antolaketa-plan horien zonifikazioa mugatzean erabili beharreko metodologia hautatzeko. Diskrezionalitate horrek ez du uzten zuzentarau aplikagarrian ezarritako metodologia aldatzen. Izan ere, aukera hori da estatu-planifikatzaileak legitimoki erabili duena, horretarako eskumena izategatik, 42/2007 Legean babestutako balioak zaintzeko, Auzitegi Gorenak adierazi zuen bezala zuzentarau horien eginkizuna baita materialki plangintza ekologikoko maila goren gisa osatzea, piramide-egitura baten gailur moduan, eta, beraz, horren menpe egon behar baitira autonomia erkidegoek onartutako planak (zuzenbideko oinarriak: 6-8). Boto partikularra baliatu da.



<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8089336a102fc2d7a0a8778d75e36f0d/20250717>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3256/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 915/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 3koa.**

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina moduan ezarri du langileen batzek eta langileen ordezkariak eskubidea dutela administrazioak emandako zerbitzu-eginkizunen luzapenei buruzko informazioa eskuratzeko. Izan ere, arauz hala ezartzen da. Hala ere, administrazioak informazio horretako isilpeko datuak ezkutatu beharko ditu, edo indarreko araudian aurreikusitako antzeko beste edozein teknika baliatu ahalko da. Hartara, inplikaturako funtzionarioen datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea behar bezala bermatuko da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d7a2e1299048f10ca0a8778d75e36f0d/20250717>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3239/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 912/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 3koa.

Auzitegi Gorenak baietsi egin du jarritako kasazioa. Izan ere, jurisprudentzia finkatua dago Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileek, lanpostuen zerrendaren arabera, 26. mailako lanpostuak betetzen dituzten kasuei buruz, eskuduntzak eta erantzukizunak 27. maila duten lanpostuak betetzen dituzten horien berdinak izaki. Eta, ordainsari-berdintasunaren printzipioaren arabera, egoera horretan dagoen funtzionarioari betetzen duen lanpostuaren osagarriaren eta goragoko mailako lanpostuari esleitutako arteko aldeak ordaindu behar zaizkio. Lanpostuen zerrendetan lanpostuari esleitutako maila zalantzan jarri daiteke, baldin eta aplikazio-egintza bat aurkaratzen bada, kontuan hartuta berdintasun-printzipioari dagokion nagusitasuna, hura bete beharrekoa baita. Hala jokatzeko da, era berean, administrazioak ahal diskrezionalak baliatzen dituen eta goragoko mailako lanpostuei dagozkien erantzukizunak eta eginkizunak dakartzan lanpostu bat betetzen duenean, eta halaxe aitortzen da ondore ekonomikoetarako. Jardun hori maila finkatzeko orduan ere kontuan hartu behar da. Izan ere, maila-finkapena maila jakin bateko lanpostu batean benetan egindako lanean oinarritzen bada eta judizialki frogatutzat jotzen bada benetako lanpostua –ez bitarteko edo behin-behineko gisa– benetan bat datorrela goragoko maila batekin, orduan ondorioztatzen da jardun hori kontuan hartu behar dela lanpostuaren benetako maila finkatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7c96243b417cb417a0a8778d75e36f0d/20250717>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3524/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 911/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 3koa.

Auzitegi Gorenak baietsi egin du jarritako kasazioa, eta ondorerik gabe utzi instantzian aitortutako deuseztagarritasuna, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 12. artikuluari lotuta (179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa), ez baitu baliaezintasun-biziorik egin. Izan ere, artikulua hori hizkuntzaren erabilera normal eta orokorrari, jardueren baliozkotasun juridikoari, hizkuntza aukeratzeko eskubideari edo irudi instituzionalari buruzko arauen ataria bada, eta horiek ez badira baliaezintzat jo eta ez badute gaitzespenik jaso, ez dauka zentzurik deusez aitortzeak, euskararen aipamen hutsak ezin baitu, bere horretan, desoreka eragin

hizkuntza koofizialen artean, euskara lehentasunezko posizioan jarritz (zeina bateraezina bailitzakete koofizialtasun linguistikoaren sistemarekin).

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/dc9b0cc43529ade1a0a8778d75e36f0d/20250724>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3261/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 923/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 7koa.

Auzitegi Gorenak errepikatu egin du zerbitzu publikoaren kudeaketa finantzatzeko eta hala beren defizita estaltzeko ente publikoek emandako dirulaguntzei buruzko jurisprudentzia-doktrina, baldin eta balioaren gaineko zergaren pean dauden eragiketak ez diren dirulaguntzak edo hornidurak badira. Kasu honetan, zerbitzu publikoaren kudeaketa finantzatzeko emandako dirulaguntzek tarifen defizita estaltzeko helburua izan dute, eta, beraz, prezioari lotuta ez dauden, eta beraz, zergapean ez dauden dirulaguntzak direla ulertu behar da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e782ae2c7d5e21c2a0a8778d75e36f0d/20250717>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3245/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 928/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 8koa.

Auzitegi Gorenak errepikatu egin du honako honi lotutako jurisprudentzia-doktrina: erreklamatu daitekeen egintza ezarri duen administrazio-organismoaren betebeharra da organo ekonomiko-administratiboari administrazio-espediente osoa bidaltzea, hilabeteko epean (epe hori preklusiboa da Zerga Administrazioarentzat). Beraz, hasieran igorritako administrazio-espedientearen osagarriak, Auzitegi Ekonomiko Administrazioak ofizioz edo aldearen instantzia bidez eskatu ez dituenak, ezingo dira berez bidali. Hasiera batean bide ekonomiko-administratiboan aurkaratutako administrazio-egintza baten egilea den administrazioak ezin ditu aurkeztu, bere demanda eskariarekin batera, Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren ebazpenaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzean, froga gisa, administrazioa-espedientearen parte izanik prozedurako une egokian Eskualde Auzitegira igorri ez diren agiriak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1d3858d27464cf58a0a8778d75e36f0d/20250717>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3523/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 931/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 9koa.

Auzitegi Gorenak aitortu duenez, alderdi auzigileengandik harago doazen ondoreen hedadura, ordainsari-osagarri baten zenbait kontzeptu jasotzeko eskubidea aitortzen duen epaiaren eta hura xedatzen duen autoaren edukia kontuan hartuta, auto honen datatik harago ezar daiteke, ondorio juridikoei dagokienez, aztertutako kasuan gertatu den bezala. Kontuan izan behar da ondoreen hedapenaren helburua dela saihestea masa-egintza deiturikoen aurka beharrezkoak ez diren prozesu ugari errepikatzea, epaiak faboratzen duenaren eta, egoera berean egonik, epaiaren ondoreak hedatzea merezi dutenen arteko berdintasun-egoera kontuan hartuta. Egia esan, segidako traktuko egoera juridiko indibidualizatu baten aitortpenaz ari gara. Egoera hori ondoreak hedatzen dituen autoaren dataren ondoren mantendu da, inguruabar berriak agertu arte: lege-iruzurra eta bidegabeko aberastea. Horiek, baita kasuan kasuko ondoreen zehaztapena ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa bideratu ondoren baino ezin dira ezarri.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/436e301fdd9579bba0a8778d75e36f0d/20250724>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3549/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 930/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 9koa.

Auzitegi Gorenak aitortu duenez, oro har, arauz ezarritako hiru urteko epea betetzen da, lan-eskaintza publikoa egikaritzeko deitutako hautaketa-prozesua osorik egiten denean epe horren barruan. Izan ere, arauz lan-eskaintza publikoa hiru urteko epean garatu behar dela agintzen bada, pentsatzekoa da epe horren barruan sartzen dela, ez soilik deialdia, baizik eta baita ere hautaketa-prozesuaren garapen osoa. Epea berez da zentzuzkoa, eta administrazioari azkartasunez eta efikaziaz aritzeko agindua ematen dio, ez baita zentzuzkoa hiru urtetik gorako epean zabaldik dauden hautaketa-prozesuak izatea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f80ada7a37256833a0a8778d75e36f0d/20250724>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3488/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 958/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 14koa.

Auzitegi Gorenak errepikatu egin du honako honi buruzko jurisprudentzia-doktrina: iraupen luzeko aldi baterako enplegu-harremanen behin-behinekotasuna gehiegizkoa den kasuetan, ezin da ukatu langile finko bihurtzeko eskaria, karrerako funtzionario bihurtu ondoren eskatutakoa, baldin eta, izaera hori eskuratu aurretik, bitarteko funtzionario gisa aritu bada lanean eta gogo maila desberdin bat finkatu bada, kasuan kasuko arauan aurreikusitako aldiaren arabera. Izan ere, arauz debekatuta dago behin-behinekotasunaren ziozko diskriminazioa baldintza hori gehiegizkoa denean, bitarteko funtzionarioen eta karrerako funtzionarioen artean tratu-berdintasuna bermatze aldera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ccc5f9ead96f69dfa0a8778d75e36f0d/20250723>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3494/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 959/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 14koa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina moduan finkatu du lehiaketa-fasea desgaitasun-txandako izangaietara mugatzen duen arauak lotura estua duela deialdiaren oinarriekin. Ondorioz, ezin da erantzun orokor bat eman, baliagarria dena hautaketa-prozesu guztietarako; aitzitik, kasuaren egoera zehatzetan eman beharreko erantzun bat da; zehazki, oposizio-fase batean non oinarriek txanda guztietarako gutxieneko eskakizun-maila komuna zehazten duten eta lehiaketa-faserako sarbidea izangai kopuru batera mugatzen duten. Kasu honetan, oposizio-lehiaketa bidez enplegu publikoa eskuratzeko desgaitasunen bat duten pertsonen erresebatutako txanda egoteak, lehiaketa-faserako sarbidea mugatzen duen arau batekin, oposizioa gainditutakoan, zera esan nahi du, txanda horretatik lehiatzen diren izangaiak lehiaketaren bigarren faserako hautatu behar direla, baldin eta deialdiaren oinarrietan ezarritako gutxieneko puntuazioa gainditu badute eta arau mugatzailea bereiz aplikatu behar bazaie txanda bakoitzeko izangaiei.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/870f81188fe35f50a0a8778d75e36f0d/20250723>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3467/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 966/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 14koa.

Auzitegi Gorenak ezetsi egin du jarritako errekurtoa. Hala, berretsi egin du ez dela onartu behar, epe kanpoko izateagatik, estatu legegilearen ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, EBko zuzenbidea eta Estatuko araudia bat ez datozelako jarria. Izan ere, Estatuko araudia ordezkatu zuen Erkidegokoak, Auzitegi Gorenaren martxoaren 23ko Epaiaren bidez. Epai honen data esanguratsua da kasu honetan ondare-erantzukizunaren egintza behar bezala baliatu ahal izateko urtebeteko epea zenbatzeko, eta, hori hala izanda, erreklamazioa 2023ko ekainaren 28an jarri izana epe kanpokotzat jo behar da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/009f3254f45e72d3a0a8778d75e36f0d/20250723>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3555/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 955/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 14koa.

Auzitegi Gorenak errepikatu duenez, guraso bakarreko familien kasuan, eta adingabe jaioberrien diskriminazioa saihesteko, kontuan hartuta konstituzio bidez aitortzen dela adingabeen interes gorenak, funtzionario publikoentzako aurreikusitako baimenari, jaiotzaren zioz ama biologikoari

hamasei aste ematen dizkionari, ama biologikoa ez den gurasoaren baimena gehitu dakioke, hamar astekoa, lehen sei asteak kendu egiten baitira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ad8e5c5fc8fea817a0a8778d75e36f0d/20250724>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3777/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 948/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 14koa.

Auzitegi Gorenak errepikatu egin du honako honi buruzko jurisprudentzia-doktrina: dirulaguntza batengatik ordaindu beharreko zenbatekoaren lege-zehaztapena egiteko garaian, dirulaguntzak onuradunaren alde sortutako berandutze-interesak ordaintzeko exigentzia sortzen da behararren lege-aitortza gertatzen den unean bertan, non eta ez den lehenago baliatu Administrazioaren jarduerarik ezaren aurkako ekintza bat, eta Administrazioak lege ezarritako dirulaguntza-betebeharra egintza betearazleen bidez hedatzen ez badu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/012a49f152e028bca0a8778d75e36f0d/20250807>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3483/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 975/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 15koa.

Auzitegi Gorenak errepikatu egin du honako honi buruzko jurisprudentzia-doktrina: zehapena eragin zuen likidazioa arrazoi formalen zioz indargabetzearen ondorio eskusibo gisa lehen akordio zehatzailea indarrrik gabe utzi zen kasuetan, "non bis in idem" printzipioaren prozedurazko dimentsioak beste zehapen-prozedura bat irekitzearen eta beste zehapen bat jartzearen aurka egiten du, zergapeko berari eta gertaera berei lotuta. Izan ere, organo ekonomiko-administratiiboak ezin du babes hartu txarto ulertutako diskrezionalitate batean, funtsean kasu horiek ez dietelako erantzuten indiferente juridikoei; aitzitik, kontuan hartu behar da "non bis in idem" printzipioari buruzko jurisprudentzia, legezketasunaren printzipioari eta zerga-eskubidea zuzen aplikatzen dela bermatzeko eginkizuna modu koherente eta arrazoituan baliatzeari hertsiki men egiten zaiolako adierazpide gisa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5ab47241133a2081a0a8778d75e36f0d/20250723>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3487/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 976/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 15koa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezarri du ez dela egokia gertaera berdinak egon badaudela edo ez daudela zehaztea Justizia Auzitegi desberdinek. Izan ere, baldin eta, printzipioz, organo judizial batek emango duen ebazpena organo judizial horrek edo beste organo judizial batek lehendik eman duenaren kontrakoa izan badaiteke, bigarren epaia eman duenak azaldu egin behar du zergatik, itxura gorabehera, ez dagoen kontraesan hori, bere ustez, edo zergatik baloratzen duen froga beste modutan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ffab6fcabb160cc3a0a8778d75e36f0d/20250723>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3506/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 987/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 15koa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina moduan ezarri duenez, administrazio autonomikoak legitimazioa duenean udal bati egintza baten ofiziozko berrikuspen has dezala eskatzeko, bere eskubide edo interes legítimoak baliatzen dituen interesduna izan beharrik gabe, lege-mailako arau batean esleitu behar den administrazio-ahala baliatzen da, legezketasunaren printzipioari jarraikiz. Izan ere, administrazioak ez du bere borondatearen autonomia baliatzeko soilik jarduten; berez, ordenamendu juridikoak berariaz esleitzen dizkion ahal batzuk (administratiboak) baliatzen ditu, interes orokorra asetzeko (bereizezina), eta administrazio-ahala baliatzearen berezko izaera teleologiko hori, legezketasun-printzipioaren arabera, lege-mailako arau bidez esleitu behar da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/50e113f9955511a0a0a8778d75e36f0d/20250723>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3642/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 982/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 15koa.

Auzitegi Gorenak errepikatu duenaren arabera, enplegu-zerbitzuak, bitartekaritza-zereginetan, administrazio publikoen eskaintza jakin batean berdinketa urratzeko irizpide gisa balia dezake eskabideak aurkeztu diren hurrenkera, betiere horretara behartzen duen berdinketa berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioekin bat datozen irizpideak aplikatu izanaren ondorio bada.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/93779c21a78567dda0a8778d75e36f0d/20250801>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3512/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 999/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 16koa.

Auzitegi Gorenak errepikatu egin du honako honi buruzko jurisprudentzia-doktrina: atzera-eraginare ezintasunaren printzipioari jarraikiz, abenduaren 26ko 70/1978 Legearen 2. artikulua Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorren Legearen bidez berritu baino lehen lan-kontratudun gisa emandako zerbitzuak eskatu zituzten eta aitortu zitzaizkien funtzionarioek lan-kontratudun gisa formalizatzean izan zuten zenbatekoa eskatu eta jaso ahalko dute.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4f7a04dd656ebb4aa0a8778d75e36f0d/20250724>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3517/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1003/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 16koa.

Auzitegi Gorenak ezetsi egin du jarritako kasazioa, eta aitortu du, kasu honetan, ez zegoela eragozpen juridikorik ospakizun baten harira udaletxeko balkoian ortzadarraren bandera jartzeko. Izan ere, ez zen bandera eta entseina ofizialak ordeztzeko edo menderatzeko jarri, ez da esanahi alderdikoia duen ikur edo zeinu bat, eta ez du inolako liskarrik aldarrikatzen. Aitzitik, pertsonen arteko berdintasunaren kontra barik haren alde egiten duen bandera da. Horrenbestez, onarpen handia duten balioekin identifikatzen da, berdintasunarekin lotuta. Balio horiek Konstituzioak eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunak ere jasotzen dituzte, eta helburu dute inguruabar pertsonalen ziozko diskriminazio oro gainditzea eta sexu-orientazioaren ziozko diskriminazio mota oro debekatzea (zuzenbideko oinarriak: 3-4). Boto partikularra baliatu da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9cbe3f22d5d42a1ca0a8778d75e36f0d/20250724>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3644/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1026/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 16koa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: funtzionarioak gaueko eta jaiegune-tako txanda-erregimenean zerbitzuak ematen dituenean, zerbitzu horiek lanaldi arruntaren ordutegiaren barruan ematen badira, funtzionarioak eskubidea du urteko oporraldietan, aldi baterako ezintasun-egoeran, norberaren gauzetarako baimenetan eta ordaindutako gainerako baimenetan ordainsaria jasotzeko; izan ere, horrek dakarren nekagarritasun berezia ordainsarietan islatu behar da, eta ordainsari-kontzeptu zehatz batean agertzen da. Kontzeptu hori, aitortzen bada, jasotzen den ordainsari arrunt eta ohikoan sartzen da, nahiz eta, izatez, zerbitzu horiek ez diren ematen urteko oporraldian, aldi baterako ezintasun-egoeran, norberaren gauzetarako baimenetan eta ordaindutako gainerako baimenetan. Beste gauza bat izango da zein kontzepturengatik ordaintzen diren edo zenbatekoa nola kuantifikatzen den (zuzenbide oinarriak: 5 eta 7). Tokiko funtzio publikoaren eremuan, aurreko kontzeptuengatik zor diren zenbatekoak

erreklamatzeko eskubidearen preskripzio-epaia lau urtekoa izango da, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorra kontuan hartuta; izan ere, hori da administrazioekiko kredituen arau orokorra.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f7bb4bc8baa76280a0a8778d75e36f0d/20250801>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3465/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1037/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 17koa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezarri duenez, zerga-administrazioak, administrazioaile izaera, erakundearen jardueraren etete eraginkorra eta etetearen unean ordaintzeke dauden zerga-zorrak egiaztatzeaz gain, erantzukizuna bideratzeko erabakian arrazoitu beharko ditu administrazioailearen errua eta zabarkeria, bere karguari berezkoak zaizkion betebeharrak urratzeagatik; bereziki, zordun nagusia modu antolatuan desegiteko, edo, hala badagokio, hartzekodunen lehiaketa aitortzeko horiek. Erantzukizun hori objektibo bihurtzeko traza oro alde batera utzita, arduradunaren jokabide zabarra bideratzeko akordioaren arrazoiek administrazioaileak azaldutako balizko arrazoiei erantzun beharko diete, ez-betetze horiek edo horiek egiteko ezintasuna azal dezaketen kausei dagokienez; azalpen horiek erruaren balorazioan haztutuko dira (zuzenbideko oinarriak: 5-6).

Bestalde, Auzitegi Gorenak errepikatu du zerga-erantzule subsidiarioa babesten duten bermeen artean dagoela, erantzukizun-kategoria horren izaera zehatzzailearen ondorioz, administrazioailearen erantzukizun objektiboaren debekua. Hala aplikatuko litzateke soilik erantzukizun subsidiarioa pertsona juridikoaren administrazioailearena bada, urratu egingo bailitzakete errugabetasun-presuntzioaren printzipioa. Era berean, berme horien artean dago frogaren karga ez lehenatzea. Erantzukizuna bideratzea eragiten duen gertaera frogatzeko kargaren gaineko azterketa ez dago, inola ere, erantzukizun-kategoria horren izaera zehatzzailetik aparte. Azken hori ez da bateragarria zerga-erantzuleari, izaera horren arabera, bere errugabetasuna frogatzeko karga esleitzearekin. Administrazioaren ardura izango da, prozedura kontraesankor batean, us-tezko erantzulearen partaidetza eta audientzia tarteko, erantzukizun horren oinarri diren frogaelementuak aurkeztea, eta eremu honetan sor daitezkeen zalantzak ebazteko «in dubio pro reo» printzipioa aplikatu beharko da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/829c17295c557e2ea0a8778d75e36f0d/20250723>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3486/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1042/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 17koa.

Auzitegi Gorenak aitortu duenez, administrazio-prozedura bat hasteko eskaria elektronikoki aurkezteko eskatzen denean eta benetan hala aurkeztu dela egiaztatzen ez denean, baina hari lotutako administrazio-tasa ordaindu izana egiaztatzen denean, ezin da eskaria aurkeztu ez dela ulertu, edo, hala badagokio, eskatzailearen eskubidea erori dela ulertu, aurretik zuzenketa-errekrimendua egin gabe, hala ezartzen baitu estatuko prozedura-araudiak (hori aplikatzen zaie amaitu ez diren eta telematikoki aurkeztu diren eskari guztiei). Kontuan hartu behar da, gainera, adierazpen hori hedatu egin dela eskaria telematikoki egin zela egiaztatu ez duten kasuetara ere, behar bezala erregistratu gabe, kasu honetan bezala. Ez da aintzat hartzen horren arrazoia plataforma elektronikoaren funtzionamendu okerra izan den, edo urrats egokiak jarraitu ez izana izan den. Eskari hori ez erregistratzea bera ez da eragozpen arau horren aurreikuspenak aplikatzeko. Hala, administrazioak bitarteko telematikoen bidezko funtzionamendua errotu eta ondo funtzionatzeko dituen betebeharrak azpimarratzen dira berriz ere.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/38f3241138b804c8a0a8778d75e36f0d/20250723>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3711/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1050/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 17koa.

Auzitegi Gorenaren arabera, ez tokiko araubideari buruzko estatuko oinarritzko legeriak, ez hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzko estatuko sektore-legeriak ez diete zuzeneko eskumenik ematen 2.000 biztanletik beherako udalerriei ur horiek tratatzeko sistema bat ezartzeko, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek beren eskumenen esparruan esleitzen diezazkieketen eskumenak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/40c07af791a3145ea0a8778d75e36f0d/20250801>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3717/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1039/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 17koa.

Auzitegi Gorenaren arabera, langile finko etenek administrazioan emandako zerbitzuak zenbaitzear, kontuan hartu behar da lan-harremanaren iraupen osoa. Izan ere, pertsona batek administrazioan lanaldi osoan egin badu lan –bitarteko estatutupeko langile gisa edo lan-kontratupeko langile gisa–, administrazioan emandako aurretiazko zerbitzuen barruan sartzen da harreman horren iraupen osoa, baita benetako lan eraginkorra egin ez duen aldia ere, besteak beste oporrak, gaixotasunen ondoriozko bajak eta abar.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/978a9aa444633260a0a8778d75e36f0d/20250801>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3714/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1088/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 21ekoa.

Auzitegi Gorenaren arabera, kontratuaren luzapenen edo proiektu aldatuen zioz kontratistari eragindako kalteen ziozko kalte-ordainaren zilegitasuna nahitaez izan behar kasuistikoa, kasuan kasuko inguruabarren arabera. Ezin da automatismorik aplikatu, hau da, ezin da ulertu luzapen edo aldaketa orok berez dakarrela kalte-ordaina, beti, ez eta kontratistak luzapena edo aldaketa onartzeak, eragozpen edo erreparorik gabe, erreklamatzeko eskubideari uko egiten diola esan nahi duenik ere, sortutako kalteen ondoriozko kalte-ordaina bateragarria baita luzapenak edo aldaketak onartzearekin, kalte-ordainik gorde gabe.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/90f2dbada-efdd00aa0a8778d75e36f0d/20250801>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3636/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1073/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 21ekoa.

Auzitegi Gorenak ezartzen duenez, funtzionarioak txandaka egiten badu lan, bere ohiko lanaldiaren barruan sartzen da zerbitzua gauez edo jaiegunetan ematea. Horrek eragiten duen neka-garritasun berezia ordainsarrietan islatzen da, ordainsari-kontzeptu zehatz batean, eta, hala aitortzen bada, ohiko ordainsarian txertatzen da, nahiz eta, berez, zerbitzu horiek ez diren ematen oporraldietan, aldi baterako ezintasunetan, norbere kontuutarako baimenetan edo gainerako baimen ordainduetan (zuzenbideko oinarria: 5). Aurreko kontzeptuengatik zor diren zenbatekoak erreklamatzeko eskubidearen preskripzio-epea, tokiko funtzio publikoaren eremuan, lau urtekoa da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1ab05e250eb68d3ca0a8778d75e36f0d/20250801>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3723/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1063/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 21ekoa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina moduan ezartzen du oker egindako diru-sarrerak itzultzeko eskatzeko preskripzio-epearen “dies a quo” delakoa kasuan kasuko diru-sarrerak izaera hori (okerra) duela agertzen den data dela; hau da, autoen kasuan, aipatutako absoluziozko zigor-epaiaren berri izan zen eguna, zerga-administrazioak berak deitutako prozesuaren arabera, salaketa hori piztu zeneko ikuskapen-prozedura automatikoki etenda. Izan ere, une horretara arte ezin zen okertzat jo bere garaian egindako diru-sarrera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f7af35ac2ad81fefa0a8778d75e36f0d/20250801>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3786/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1094/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 23koa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina moduan ezarri duenez, izatezko bikotetzat jotzeko (alarguntasun-pentsioa sortze aldera), beharrezkoa da kausatzailearen heriotzaren aurre-aurretik bizikidetza egonkorra eta nabarmena egiaztatzea, gutxienez bost urtez, etenik gabe. Horretarako, zuzenbidean baliagarria den edozein bitarteko erabiliko da, edo izatezko bikotea eratu edo formalizatu izana egiaztatu, bizilekuko udaletxean edo autonomia-erkidegoetan dauden erregistro espezifikoetan inskribatuta, edo agiri publiko batean, kausatzailearen heriotza baino gutxienez bi urte lehenago. Eta eraketa hori egiaztatzeko nahitaezkoa izango da aipatu erregistroetan inskribatu izanaren ziurtagiria edo bikote horren eraketa aipatu aurrerapenaz jasotzen duen agiri publikoa; bikotea eratzeko baldintza eta aipatutako epea ezingo dira ordezkatu bizikidetza egiaztatzeagatik. Izan ere, bitarteko egoki, beharrezko eta proportzionatuaren bidez egiaztatu beharra dago izatezko bikotekideen arteko bizikidetza-konpromisoa. Hartara, legegileak aukera izango du babesa merezi duen beharrian-egoera zehatzen bat identifikatzeko, estatuko klase pasiboen sistemako alarguntasun-pentsioaren bidez.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6dd57fc3383550b1a0a8778d75e36f0d/20250808>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3783/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1100/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 24koa.

Auzitegi Gorenak adierazten du jakinarazpena egin duen Administrazioako enplegatu publiko batek zuzenean entregatuta egiten diren jakinarazpenek, jakinarazpen ororen baldintza orokorreztan gain, interesdunaren helbidean paperezko jakinarazpenak egiteko ezarritako eskakizunak bete behar dituztela, betiere defentsa-gabeziarik gerta ez dadin eta interesdunaren eskubideak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezken. Posta-zerbitzu unibertsalaren printzipioak eta betekizunak, arau bidez ezarritakoak, ez dira aplikagarriak jakinarazpena egin duen Administrazioako enplegatu publiko batek zuzenean entregatuta egiten diren jakinarazpenetan, berezko berezitasunak baitituzte eta nabarmen bestelakoa den eremu batean kokatzen baitira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/335b7d2c5aa356d9a0a8778d75e36f0d/20250807>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3917/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1111/2025 Epaia, 2025eko irailaren 9koa.

Auzitegi Gorenak baietsi egin du jarritako errekurtsioa; izan ere, bitarteko funtzionario gisa emandako zerbitzu-urteei buruzko aipamen hutsa ez da nahikoa aurkaratutako epaiak deklaratzeko duen abusu-egoera automatikoki ondorioztatzeko. Deklarazio hori inguruabar zehatz eta

espezifikiko batzuetatik ondorioztatu behar da, eta, kasu honetan, eskatzen zuen aplikatu zitekeen bitartekoen zerrenda-sistema aztertzea, izendapenen ondorengotza-mota aztertzea eta zerbitzuak lantoki batean edo batzuetan eman ziren baloratzea. Kasu honetan ez da halakorik argudiatu. Gainera, azaldu beharra zegoen lanpostu hutsa zer motatakoa zen, irakasle-eginkizun guztiak berdinak izan ziren ala ez, eta, azken batean, horretarako deitutako hautaketa-prozesuetara aurkeztu ote zen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/87d1363c6678d736a0a8778d75e36f0d/20250926>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3927/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1113/2025 Epaia, 2025eko irailaren 9koa.

Auzitegi Gorenak adierazi duenez, hirigintza-tresna baten onarpena zuzenean jakinarazten bazaio jendaurrean jartzeko izapidean alegazioak egin dituenari, aldizkari ofizialean argitaratu ondoren, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko epea hura ofizialki argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da. Kasu honi dagokionez, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epearen hasierari buruzko arau orokorra, xedapen orokorraren argitalpenarekin hasten dena, ez da aldatzen erakunde errekurtsogileak hirigintza-ordenantza egiteko prozeduraren jendaurreko informazioaren bi izapideetan alegazioak aurkeztu izanagatik, ez eta bere alegazioen ebazpenaren jakinarazpena eta behin betiko onespeneraren ondorengo erabakiak pertsonalki jaso izanagatik ere; izan ere, herritarrak administrazio-prozeduran duen parte-hartzearen intentsitatea edo eginbidea bezalako zerbaiten mende jartzen bada epearen betearazpena, segurtasun juridikoaren printzipioaren ikuspegitik onartezina litzatekeen ziurgabetasun bat eragiteko arriskua dago, alderdi horiek lausoak eta kontingenteak baitira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e8e291283740c53ea0a8778d75e36f0d/20250926>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3826/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1119/2025 Epaia, 2025eko irailaren 11koa.

Administrazioak garatu du, energia elektrikoa merkaturatzen duten enpresek egiaztatu ahal izan dezaten bonu sozialaren eskatzaileek betetzen dituzten ala ez legez eta erregelamenduz bonuaren onuradun izateko aurreikusitako baldintzak. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eskubide konstituzional bat da, eskubide subjektibo gisa erabil daitekeena administrazio publikoaren aurrean, demokraziaren eta gardentasunaren eskakizunetatik eratorria, eta estatu demokratikoari eta zuzenbidekoari modu banaezinean lotua. Eskubide horrek garrantzi berezia hartzen du ahal publikoak gauzatzean edo zerbitzu publikoak ematean teknologia berriak erabil-



tzeak dakartzan arriskuen aurrean, hala nola administrazio publikoen jardueran erabakiak hartzeko sistema informatiko automatizatuak erabiltzean, bereziki eskubide sozialak aitortzea helburu dutenean. Kasu horietan, jarduera horietan jarraitutako prozesu informatikoen gardentasun-eskakizunak ezarri behar ditu, herritarrei horiek ulertzeko eta haien funtzionamendua eza-gutzeko behar den informazioa emateko. Horrek, batzuetan, eska dezake haien iturburu-kodera sartzea, sistema algoritmikoa aplikatu beharreko arau-aurreikuspenekin bat datorren egiaztatu ahal izateko. Hortaz, lehentasuna ematen dio informazioa eskuratzeari, Estatuaren abokatuak alegatutako jabetza intelektualaren eta segurtasun juridikoaren eskubideen aurrean.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/27d0d44d33b0dd21a0a8778d75e36f0d/20250919>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4057/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1132/2025 Epaia, 2025eko irailaren 12koa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du administrazio-kontratu bateko alderdiei aukera ematen zaiela kontratistari ordaintzeko araubide bat finkatzeko kontratu-klausuletan, aipatutako manuan aurreikusitakoaz bestelakoa, baldin eta ez bada gehiegizkoa kontratistarentzat, ez eta interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren eta administrazio onaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioen aurkakoa ere. Printzipio horiek kontratazioaren funtsezko printzipiotzat jotzen dira sektore publikoaren eremuan, eta muga gisa jokatzeko dute alderdien borondatearen autonomia gauzatzean. Itun-askatasunaren zioz, administrazio-kontratu bateko alderdiek ezin izango dute, inola ere, adostu klausularik administrazioari ordaindu aurretik kontratistak emandako zerbitzuei dagokienez beharrezkoak diren doikuntzak eta egiaztapenak egiteko ahalmena kentzen duenik; izan ere, ahalmen hori eraginkortasun-printzipioaren adierazpena da, baliabide publikoen erabilera optimoari lotuta, helburua baita egiaztatzea emandako zerbitzuak benetan egokitzen zaizkiola formalizatutako kontratuaren betearazpenari. Administrazioak ahalmen hori baliatzean, prezioak ordaintzeko araudian aurreikusitako gehieneko 30 eguneko epea murriztea dakarten itunak baino ezin dituzte egin administrazio-kontratu bateko alderdiek.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/019f1044e0178184a0a8778d75e36f0d/20251003>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3878/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren Epaia, 2025eko irailaren 15koa.

Auzitegi Gorenak berretsi egiten du "administrazio publikoen arteko auziak" interpretatzen dituen jurisprudentzia, prozesalki aurreikusitako aurretiazko errekerimenduari dagokionez, aplikagarria dela araudian erabilitako adierazpen bera interpretatzeko, eta, beraz, beti apelatu ahal izango direla administrazio publikoen arteko auziak ebazten dituzten epaiak, "imperium" ahalmenak erabiliz jarduten dutenean.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6fb12fef34d24b13a0a8778d75e36f0d/20250926>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4041/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1139/2025 Epaia, 2025eko irailaren 16koa.

Auzitegi Gorenak berretsi duenez, enplegu publikoa eskuratzean, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak aplikatzearen ondorioz, "zerrenda osagarria" deritzon horretako izangaiek **hutsik dauden plazak** eskuratu ahal izango dituzte, soilik baldin eta, hasieran gainditu dutenetako batzuek uko egin dietelako, hasieran gainditu dutenei aldeztu aurretik eskaini

bazaizkie. Izan ere, zerrenda osagarriaren helburua da plaza hutsak gera daitezen eragozte, hau da, plaza guztiak betetzean merezimenduak eta gaitasunak ezarritako ordena jarraituko dela ziurtatzea. Oinarriak interpretazio horren arabera egokitu behar dira. Beraz, aplikatu beharreko araudiaren arabera, plazak hautatzerakoan ezin da puntuazio-ordena aldatu, puntuazio onena izan zutenak baztertze.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f7d8bcf56213c56da0a8778d75e36f0d/20251002>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4069/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1142/2025 Epaia, 2025eko irailaren 17koa.

Auzitegi Gorenak aitortu du, kontuan hartuta ordenantzak ez dituela bereizten erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia, eta, beraz, jabari publikoa erabiltzeko modu bat zein bestea parametro berberen mende daudela, urratu egin dela erabilera pribatiboak eta aprobetxamendu bereziak dakarten intentsitate desberdinaren arabera zerga-kargaren zehaztapenaren artean nahitaez egin beharreko bereizketa. Izan ere, zerga-ordenantzak –aprobetxamendu berezia eta erabilera pribatua bat datozen kasuetan– justifikatu beharko du horietako bakoitzaren intentsitatea edo garrantzia, tasa indarreko legeriaren arabera kuantifikatzeko orduan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/cca08b717f011b19a0a8778d75e36f0d/20251009>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3896/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1151/2025 Epaia, 2025eko irailaren 18koa.

Auzitegi Gorenak berretsi egin du honako honi buruzko jurisprudentzia-doktrina: udaltzaingoen plantilla gaztetzeko ematen dituzten primak, haborokinak, kalte-ordainak edo, oro har, erretiro aurreratuetatik pizgarriak ordainsari-izaera dute; eta, beraz, estatutupeko funtzionario-harremana denez, funtzionarioen ordainsarien araubidea betetzen du, eta, hori dela kausa, zuzenbidearekin bat etorriko dira soilik tokiko administrazioko funtzionarioen ordainsariei buruzko lege-arau orokor baten estaldura badute. Araudiak, erretiro aurreratua sustatzeko neurriak aurreikusitako arren, ez zuen erregulazio zehatzik egin neurri horiek ordainsari-izaera duten kasuetarako, eta, horregatik, ez du betetzen erretiro aurreratuetatik haborokinek irismen orokorreko lege-arau batean estaldura izateko eskakizuna; era berean, antzeko idazkera duten autonomia-erke-degoetako manuek ere ez dute baldintza hori betetzen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7eba16169510ca-afa0a8778d75e36f0d/20250926>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3934/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1159/2025 Epaia, 2025eko irailaren 22koa.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, udalak ibilgailuak aparkatzeko duen eskumena ez da titulu nahikoa jabari publiko hidraulikoaren arloan eskumena duen administrazioko udal bat zehatzeko, hain zuzen jabari publiko hidrauliko horretako ondasun bat hirugarrenek, aparkatuta, okupatu izana ez eragozteagatik eta egintza hori jazartzeagatik, udalek ez baitute eskumenik Uren Legean arau-hauste gisa tipifikatutako jokabideak eragozteko, jazartzeko edo zigortzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3488ece61bdc1308a0a8778d75e36f0d/20250926>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4003/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1160/2025 Epaia, 2025eko irailaren 22koa.

Auzitegi Gorenak adierazi du, esparru-akordioaren babesean, aldi baterako enpleguaren harremana luzea bada, bitarteko moduan egindako aldia zenbatu egin behar dela gradu pertsonala finkatzeko, karrerako funtzionario izatera iristen denean. Salak baietsi egin du errekurtsogileak egindako eskaera, bitarteko funtzionario gisa jardun zuen hiru urte baino gehiagoko aldia zenbatu dakion gradu pertsonala finkatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d3161f62e459ef73a0a8778d75e36f0d/20251002>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4036/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1180/2025 Epaia, 2025eko irailaren 24koa.

Auzitegi Gorenak adierazi duenez, hondakin-urak tratatzeko ezinbestekoak edo beharrezkoak diren obra hidraulikoak gauzatzearen arloan administrazio autonomikoari ezarritako betebeharrak ez betetzeak erantzukizunetik salbuetsi ahal izango ditu hondakin-urak husteko eta tratatzeko eskumena duten toki-erakundeak, indarrean dagoen araudia betetzen ez duten isurketak egiten dituztenean, betiere isurketa horiek ez egiteak pertsonen osasuna larriki arriskuan jar badezake.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e74b72fe0dc0d5e0a0a8778d75e36f0d/20251002>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4075/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1178/2025 Epaia, 2025eko irailaren 24koa.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau errepikatu du: udalak baimena ematen baldin badu bide publikoan salgaiak kargatzean aparkalekua erreserbatzeko, baimen horrek berekin dakar jabari publikoaren aprobetxamendu berezia, baina ez da ondarearen kostu bidezko esku-aldaketarako zergaren peko egitate. Zergaren araudiak, itxura batean, parekatu egiten ditu administrazio-emakidak –“in re aliena” benetako eskubidea dakartenak demanioarekiko– eta jabari publikoko ondasunen aprobetxamendu berezirako baimenak –kasu honetan, ostalaritzak kalean jartzen dituen terrazak–, baina ez da aintzat hartu behar demanioaren aprobetxamendu berezi orok dakarrenik, berez, ondare-desplazamendurik baimendunaren alde, aztertzen ari garen zerga ordainarazteko denaz bezainbatean. Nolanahi ere, jakin nahi baldin badugu jabari publikoaren aprobetxamendu berezirako baimena zergapetu behar ote den, ikusi behar da ea ondare-desplazamendurik gertatu den, eta, horretarako, baimen horretan zer jartzen duen eta zergatik eman den ere begiratu behar da, ondorio fiskaletarako garrantzitsua baita.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b262f8eb4a56e9e3a0a8778d75e36f0d/20251009>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4059/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1201/2025 Epaia, 2025eko irailaren 29koa.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, deuseztatutako egintza batzuen ordezkio egintzen edukia errepikatzeko ahalmena du administrazioak –praktika administratibo eta judizialean tiro bikoitza izenez ezagutzen dena–, tartean dagoen akats edo arau-hauste juridikoaren izaera alde batera utzita –formala nahiz materiala izanda ere–, eta ahalmen horrek aukera ematen dio administrazioari bigarren egintza bat emateko, hain zuzen ere aldeztu aurretik, hura agindu edo gaitzen duen berrikuspen-bidean –haren izaeraren arabera– ezarri dena betearazteko, baina ahalmen horrek ez du baimentzen jarduera hori errepikatzea eta hirugarren likidazio-egintza batean edo gehiagotan zehaztea. Inola ere ez da zilegi Administrazioak hirugarren egintza bat ematea, eta are gutxiago ondorengo beste administrazio-egintza batzuk, nahiz eta bigarren egintzak edozein akats formal edo material izan eta ordenamendu juridikoa urratu. Administrazio onaren eta fede onaren printzipio orokorrak, besteak beste, erabat kontrajartzen zaizkio aukera horri. Ezin da onartu administrazioari aukera mugagabea ematea kargak ezartzen dituzten administrazio-egintzak errepikatzeko, harik eta, azkenean, asmatzen duen arte (herri-tarren gainean kalteak sortuz).

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2f335f3b551b8d4ca0a8778d75e36f0d/20251009>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4073/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1200/2025 Epaia, 2025eko irailaren 29koa.

Auzitegi Gorenak hau errepikatu du: kontratazio publikoaren esparruan, dena delako kontratatik, administrazioak eskatuta eta fede onez, kontratuaren iraupena amaitu ondoren eta inolako aldaketarik egin gabe zerbitzua ematen jarraitzen badu, ezin izango dio kalte ekonomikorik eragin, administrazio kontratatzaileak zerbitzua protesta edo erreserbarik egin gabe jasotzen duenean, zerbitzu horien jatorria kontratua dela jo beharko baita. Ondorioz, berandutze-interesen sortzapenari dagokionez, administrazioaren arloko kontratazio-araudia aplikatu behar da, eta, horren arabera, berandutze-interesen zenbaketa, administrazioak ez badu printzipala ordaindu, erreklamazioa egin zenetik hogeita hamar egun igarotakoan hasten da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8bb4ad69ab20b2d5a0a8778d75e36f0d/20251009>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4096/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1206/2025 Epaia, 2025eko irailaren 29koa.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, datu pertsonalen tratamendua zilegi izango da, besteak beste, tratamenduaren arduradunari aplika dakioken legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa denean, edo interes publikoa betetzean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzean egindako misio bat betetzeko beharrezkoa denean, baldin eta ez badu ukatzen Zerga Administrazioari Estatu Agentziak, zergak kudeatzeko, ikuskatzeko edo biltzeko prozedura izapidetzean eta ebaztean, hirugarren pertsona fisikoen (administrazio-espeditentearen mendeko zergapekoarenak ez direnen) datu pertsonalak erabiltzeko aukera, datuen tratamenduak babes hartzen badu zerga-agintaritzari iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko ematen zaizkien ahalmenetan, sartzen diren datuak egokiak, zuzenak, bidezkoak eta beharrezkoak badira adierazitako egintzak zehazteko eta hartzen diren ebazpenak arrazoitzeko, eta tratamenduaren helburu legitimoak proportzionatuak badira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/68c27dfef1a77d1aa0a8778d75e36f0d/20251009>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4079/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1219/2025 Epaia, 2025eko urriaren 1ekoa.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, ezin da erreklamazio ekonomiko-administratiborik jarri KAEAn, auzibidearen aurretik, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak emandako ebazpenak aurkaratzean (ebazpen horien bidez, berandutze-interesak likidatzen dira, ezartzen dituen zehapenen betearazpena egoitza judizialean etenda egon den denboraren ondorioz). Izan ere, ezin da jo bilketa-egintzatzat, ZLOren aplikazio-eremu objektibotik kanpo gertatzen delarik likidazio bat, nahiz eta atzerapen-interesak izan administrazio-zehapen batzuk egoitza judizialean etenda egon diren denboragatik, are gehiago likidazioak berak epe bat ematen duenean ateratzen den batura borondatez ordaintzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a163eaeac57c58d1a0a8778d75e36f0d/20251009>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4310/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1226/2025 Epaia, 2025eko urriaren 1ekoa.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, erregulazio harmonizatuko segurtasun pribatuko zerbitzu-kontratu baten esleipenaren esparruan, enpresa kontratista nagusiak ez duenean legez eskatutako lanbide-gaikuntzarik administrazio-kontratuaren xede diren prestazio guztiak edo batzuk egiteko, ezinezkoa da gaitasun-falta hori ordezteko kontratuaren xedearen barruan definituta dauden eta osagarri huts ez diren segurtasun-zerbitzu jakin batzuk azpikontratatzuz, nahiz eta azpikontratatzutako enpresak horretarako beharrezko gaikuntza izan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/669b1b1cc6cbe1b8a0a8778d75e36f0d/20251017>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4282/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 1957/2025 Epaia, 2025eko urriaren 1ekoa.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, ez dira bateragarriak egintza baten betearazpena etetearen ondoriozko berandutze-interesak eta errekaru exekutiboa, baldin eta, etetearen unean, egintza hartako zorra betearazpen-aldian bazegoen.



<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0176c053dc2dc15aa0a8778d75e36f0d/20251017>



Justizia-auzitegi nagusiak

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 2454/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 276/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 1ekoa.

Justizia Auzitegi Nagusiak deklaritzen du bidezkoa dela COVIDaren garaiko jabari publikoaren emakida ekonomikoki berrezartzea, emakidadunak konpentsatu behar direnean diru-sarreraren galeragatik eta jasandako kostuen gehikuntzagatik; kontuan hartu behar dira benetan ordaindu-tako soldata-gastu gehigarriak, kontratuaren ohiko betearazpenean aurreikusitakoekin alderatuta.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/032e93c4c7e98488a0a8778d75e36f0d/20250807>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 2457/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 342/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 1ekoa.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egin du jarritako apelazioa, eta lurzoru urbanizaezinean lizentziarik gabe egindako eraikin bat eraisteko agindu du, salatutako obrak legeztatu ezinekoak dira onartu baita, irmotasunez. Halaber, hirigintza-legezketasuna berrezartzeko 4 urteko iraungitze-epe hori ez zen osorik igaro, eta, gainera, lurzoru urbanizaezinaren kasuan, aipatutako epea ez da aplikatzen horrelako lurzoruetako eraikuntzetarako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e15b0254b6718b72a0a8778d75e36f0d/20250807>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 2556/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 318/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 1ekoa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du jarritako apelazioa, eta berretsi egin du jarduera pribatuan aritzeko bateragarritasun-eskaera ukatu izana. Izan ere, bateragarritasuna baimentzeko erabateko ezintasuna deklaritzen da, bateraezintasuna berariaz ordaintzen denean, eta, aldi berean, baimena jasotzeko eskubidea aitortzen du berariazko osagarriak oinarritzko ordainsarien % 30 gaitzen ez badu (antzinatasunari buruzko kontzeptuak kanpo utzita). Ez da berariazko osagarriaren osagai orokorren eta berezien arteko bereizketa teorikorik aztertu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3854d0131356ff9da0a8778d75e36f0d/20250813>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 2331/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 321/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 2koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak adierazi duenez, baldin eta administrazioak deialdiko plazen kopurua eta ezaugarriak aldatu nahi baditu administrazio-emakida batean, aldeztu behar du, hasierako deialdiari emandako publizitate bera emanez, interesdunek aukera izan dezaten aurreikuspen berriak zalantzan jartzeko edo haien portaera horietara moldatzeko. Hori egin ondoren bakarrik ebatzi ahalko da. Ez da zilegi jokoaren arauak aldatzea esleipena ebazten den ebazpenean bertan. Izan ere, esleipen-ebazpena da lehiaketa-prozedura honi amaiera ematen dion administrazio-egintza, eta aurrez ezarritako arau guztiak kasu zehatzari aplikatzearen emaitza izan behar du.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c4162c21ef05eee2a0a8778d75e36f0d/20250730>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 2667/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 353/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 9koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak berretsi egin du udalak eskatutako sarrera baimentzea erabaki zuen autoa, Alkatetzaren Dekretua betearazteko. Dekretu horren bidez, birgaitze-obra ikuskatzeko bisita bat egitea erabaki zen. Salak uste du baserrian egindako obra ikuskatzeko sarrera-baimenak ez duela motibazio faltarik, eta idazkariaren presentzia egokia dela akta egiteko, eginkizun hori eslehi dakiokeen beste udal-funtzionario bat ez dagoelako, are gehiago kontuan hartuta arkitecto gisa esku hartzen duena ez dela udal-plantillako funtzionarioa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3b0c5be878857b72a0a8778d75e36f0d/20250828>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 2762/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 334/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 9koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du jarritako apelazioa. Izan ere, aplikatu den hizkuntza-eskakizuna langile guztiei eskatzea nabarmen neurrigabea da gaztelaniaren kaltetan, eta Konstituzioko aginduen, Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren eta horiek interpretatu eta aplikatzen dituen jurisprudentziaren aurkakoa da, diskriminazio-baldintza bat baita, eta herritarrek enplegu publikoa berdintasun-baldintzetan eskuratzeko duten eskubideari eragiten baitio, herritar talde bati lehentasuna ematen diolako beste batzuen aurretik, herritarrek hizkuntza koofiziala jakite hutsagatik, administratuek administrazioarekin euskaraz harremanak izateko duten eskubidea bermatzeko beharrezkoa ez izan arren.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1a2de7cd91425f61a0a8778d75e36f0d/20250902>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 2694/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 358/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 10ekoa.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egin du jarritako apelazioa, eta baliogabetu egin du erraustelaberik eta tanatopraxia-gelarik gabeko beilatoki bat instalatzeko eta erabiltzeko lizentziak ematea. Izan ere, beilatoki bat osatzen duten espazio bakoitzaren barruan aireztatzeko higie-ne-baldintza egokiei dagokienez, ez dirudi hori lor daitekeenik tumuluentzat eta kutsadura hori eduki ezin duten eremuentzat aireztatze-sistema bera aurreikusiz, eta udalak ez zuenez ezarri tumulu-en barruan airearen kalitatea bermatzeko helburua zuen instalaziorik (kalitate hori ez da bai-latokiko gainerako geletan dagoenaren berdina), obra-lizentziak eta erabilera-lizentziak eman zituen, araudiak eskatzen dituen higie-ne-eskakizunen kontra.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/809e7ff353b5add0a0a8778d75e36f0d/20250829>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 2764/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 295/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 14koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak berretsi egin du Buen Pastor izeneko lurpeko aparkalekuaren baldintza-agiriaren 30. artikulua aldatzen duen udal-erabakiaren deuseztasuna. Salak uste du ez dela egiaztatu interes publikorik dagoenik; izan ere, interes orokorrari eragiten zaiola esan ahal izateko, egoera errepikakor baten aurrean egon beharko genuke, eta, ondorioz, instalazioen erabilera normala asaldatu beharko litzateke. Beraz, gertakari isolatu bat ez da nahikoa emakidaren baldintza-agirian aldaketa bat sartzeko baldintza egokiak daudela ondorioztatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e329b76ac6c797baa0a8778d75e36f0d/20250902>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 2765/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 294/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 14koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du jarritako apelazioa. Hala, berretsi egin du oreka ekonomikoa berrezartzea ukatu izana, kiroldegia ixteagatik, COVID-19ari aurre egiteko alarma-egoe-raren adierazpenaren ondorioz. Izan ere, osagarriaren ordainketa merkataritza-etxearen eta langileen ordezkarien arteko negoziazio baten emaitza izan zen, eta udalak ez zuen inola ere parte hartu negoziazio horretan. Enpresak hartu zuen zenbateko horiek ordaintzeko konpromisoa. Orain ezin da espero administrazioak bere gain hartzerik berak hartu ez zituen konpromiso batzuk, konpromiso horiek zehaztean ez baitzuen inolako parte-hartzerik izan (zuzenbideko oinarria: 5). Nahiz eta onartu gaixotasunaren hedapena geldiarazteko neurriek kirol-instalazioaren ustiapenak sortutako onurei eragin behar zirela, ireki zenetik ezin da esan kontratua gauzatzeko ezintasuna zegoenik, baizik eta kontratua garatzeko baldintzak aldatu egin zirela. Beraz, bi egoera ezberdin dira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/994643f7c441b6a8a0a8778d75e36f0d/20250902>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 2885/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 340/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 15koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du jarritako apelazioa, eta berretsi egin du aurrez aitortutako dirulaguntza ez dela erabat baliogabetu. Izan ere, eskaera egin aurretik igorritako faktura ez da lanak hastea eragiten duen kontratu-konpromiso irmoa, baizik eta finantzaketarako prestakuntza-dokumentu bat. Izan ere, alderdiek ekainean zehar egin zutena aurrekontratu bat izan zen, hau da, negozio juridiko bat, non alderdiek proiektatutako kontratuaren perfekzioa atzeratzen duten geroagoko une batera, edozein arrazoi dela medio ez dutelako une horretan egin nahi. Hala, kontratuaren beraren baldintzat hartzen den gertakari bat ezartzen da, ez da ikusten lege-iruzurra egiteko asmorik dagoenik, eta faktura obra handiago baten testuinguruan kokatzen da (obra horren plangintza eta garapena dirulaguntzaren aurreikuspenaren arabera dira).

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/68332ae018af4301a0a8778d75e36f0d/20250925>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 2885/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 340/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 23koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du jarritako apelazioa, eta berretsi egin du bitarteko langilearen kargu-uztea, udalak justifikatu egin baitu betetako plaza behin-behinekoa dela. Argi dago funtsean behin-behinekoa den programa baten aurrean gaudela, eta ezin direla oro har aipatu udal-eskumenak, auzi-jartzaileak bitarteko gisa betetzen zuen lanpostuaren egiturazko egoera ezartzeko. Kasu honetan, kontratazioa eragin zuen zirkunstantzia iraungi denez, erabat justifikatuta dago auzi-jartzailearen kargu-uztea, plaza betetzeko beharrizan-arrazoiak desagertu egin baitira.

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 2983/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 380/2025 Epaia, 2025eko irailaren 9koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du jarritako apelazioa, ondare-erantzukizunaren erreklamazioak ezin baitu aurrera egin. Izan ere, erreklamazioa aurkeztearekin batera, ez zen sortu kalte-ordaina jaso behar zuen kalte erreal eta eraginkorrik, une horretan ez zegoelako erabaki judizial irmorik baieztatzen zuenik sektorea ezin zela garatu HAPOa Lurzoruaren eta Hirigintza-ren Legera egokitu ez zelako. Kaltea, gehienez ere, etorkizuneko edo hipotetikoa zen, eta, nolahi ere, dagokion errekurtsioa ebazterakoan sala honek zuen irizpidearen mende zegoen. Ordura arte, Salak esan zezakeen Plan Partziala, hasiera batean, HAPOa Lurzoruaren eta Hirigintza-ren Legera egokitu beharrik gabe onar zitekeela, aldeztatik adierazi zuen bezala, eta horrek, jakina, kalte-ordaina jasotzeko edozein aukera ezabatuko zukeen. Berretsi behar da, azkenik, ondare-erantzukizunaren erreklamazioa goizegi izan zela eta, horregatik, ezetsi egin behar zela, hala erabaki baitzen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/01ca5a3c7aca0bb8a0a8778d75e36f0d/20251001>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JAN 3014/2025 Epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 403/2025 Epaia, 2025eko irailaren 18koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du jarritako apelazioa, eta eraisteko agindua berretsi du. Izan ere, espediente hasi eta 3 hilabeteko epean saiakerak biderkatzeak ez dio kalterik egiten jakinarazitako pertsonari, baizik eta mesede egiten dio, eta jakinarazteko ahaleginetako batek iraungitzea baliogabetzea ekarriko luke, 4. egunaren hurrengo 3 egun baliodunetan egin baitzen (zuzenbideko oinarria: 5). Apelatzaileak lizentziarik gabe egindako obra ezin da legeztatu (zuzenbideko oinarria: 6), eta apelatzaileak berak kokalekuari, materialei eta neurriei buruz eman dituen ezaugarriengatik, ezinezkoa da hura legeztatzea aplikatu beharreko hirigintza-araubidearen arabera. Hori dela eta, ez da ikusten eraikitakoak eraisteko bestelako irtenbiderik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e03f946494d853ada0a8778d75e36f0d/20251006>

Autonomia-erkidegoetako justizia-auzitegi nagusiak

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Galiziako JAN 5423/2021 Epaia) Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 372/2021 Epaia, 2025eko urriaren 1ekoa.

Egintzaren eta arauaren arteko bitarteko figura bat dago, jurisprudentziak "arau-elementu bereizi" izendatu duena, eta egokia da kontzeptualki identifikatzea, araua emateko aurreikusitako prozedura kontuan hartzeko. Adibide bat jartzearen, Auzitegi Gorenaren 99-12-22ko Epaia ebatzi zuen zerbitzu publiko bat emateagatik tarifa edo partida batzuen prezioa edo balioa ezartzea edo aldatzea teknikoki elementu arauemaile bereizi gisa ezagutzen dena erreproduzitzea zela. Hori arautzeko ahalmenaren adierazpen espezifikoa da, eta hori gauzatzeak ez du eskatzen xedapen orokorrak egiteko prozedurara egokitzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4c33e021d4c9c90a/20211203>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Valentziako JAN 8199/2021 Epaia) Valentziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 757/2021 Epaia, 2025eko urriaren 21ekoa.

Epaimahaikideen titulazio faltaren ondorioz, hautaketa-prozesu bateko epaimahaiaren jarduerak muturretik deusez aitortu dira. 364/1995 Errege Dekretuaren arabera, bai epaimahaiek bai hautaketa-batzorde iraunkorrek errespetatu egin behar dute espezialitate-printzipioa, hau da, kasu zehatz honetan, balorazio-batzordeko kideek kasuan kasuko kidegoan edo eskalan sartzeko eskatzen den titulazio-maila edo altuagoa eduki behar dute.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8f6b6b6c4c3d5c25a0a8778d75e36f0d/20250404>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Andaluziako JAN 13221/2025 Epaia) Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 1619/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 9koa.

Interesdunak administrazio-errekursoaren bidea edo administrazioarekiko auzi-errekursoaren bidea baliatu ahal izan baldin badu defendatzeko edo bere ikuspegiak azaltzeko, jo daiteke omisioa zuzendu dela, eta ez da garrantzitsua izango errekurtsogilearen benetako interesen ikuspegitik, ezta Administrazioaren kontrol objektiboaren ikuspegitik. Hortaz, bateragarriak izango dira defentsa-gabeziaren konstituzio-debekua eta ekonomia prozesalaren printzipioaren abantailak, azken horrek lehena osatzen baitu, haren aurka egin gabe.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a7a63ebe38133dd7a0a8778d75e36f0d/20250911>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Aragoiko JAN 1341/2025 Epaia) Aragoiko Justizia Auzitegi Nagusiaren 436/2025 Epaia, 2025eko irailaren 22koa.

Estatu-gaikuntza duten Toki Administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikuluan aurreikusitakoa betez, lanpostua metaketa bidez betez gero, automatikoki utziko du kargua hura betetzen ari zen bitarteko edo behin-behineko funtzionarioak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4346720181411b15a0a8778d75e36f0d/20251003>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Madrilgo JAN 10187/2025 Epaia) Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren 559/2025 Epaia, 2025eko uztailaren 29koa.

Administrazio onaren printzipioak oinarri eztaba daezina dauka konstituzioan eta legean. Horren bi adierazpen bereiz ditzakegu: batetik, administrazioaren betebeharrak eta eskakizun bat da, bere jarduerak gidatu behar duena aipatu parametroen artean, tartean diligentzia eta behin-behineko jarduerak; eta, bestetik, administrazioaren eskubide bat da, eta, beraz, bere izaerari jarraikiz, administrazioan bere interesak defendatzeko baliatu daiteke, eta, administrazioaren diligentzia faltari edo jarduerarik ezari dagokionez, jarduerarik ezaren debekuan ez ezik, berariaz eta kategorikoki ere islatzen da Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 41. artikuluan.

Zehapen-prozedura bat ebazteko gehieneko epea zenbatzeko data prozeduraren hasiera jakinaz den data da, ez aurretiazko jardueren data, salbu eta jarduerak horiek iruzurki erabiltzen bada prozedura amaitzeko sei hilabeteko epea luzatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a6569d133a095d70a0a8778d75e36f0d/20250924>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Andaluziako JAN 11164/2025 Epaia) Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 1267/2025 Epaia, 2025eko ekainaren 4koa.

Baimenak emateko prozedurak norgehiagoka-prozedura bermatu behar du, SPKLk ere aipatzen duen bezala. Horren testua, hala ere, ez da aplikagarria herri-jabariko emakida eta baimenetan (SPKLren 9.1 artikulua), baina haren printzipioak (besteak beste, lizitazioetan parte hartzeko askatasuna, publizitatea, gardentasuna eta tratu-berdintasuna) sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko aplikatuko dira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/70fa0aab693da820a0a8778d75e36f0d/20250818>

TOKIKO MUNDUA EUROPAN

Eskualdeetako Lantaldea

- 2027aren ondorengo urte anitzeko finantza-esparrua, baliabide propioen paketea barne.

Irizpen honen xedea da azaltzea zein den Eskualdeetako Lantaldeak (EL) duen jarrera hiru legegintza-proposamenei buruz (Urte Anitzeko Finantza Esparruaren Erregelamendua, Baliabide propioei buruzko Erabakia eta Aurrekontu-arloko lankidetzari buruzko Erakunde arteko Akordioa) eta Batzordearen komunikazio orokorrari buruz («Etorkizuneko lehentasunetarako EBren aurrekontu dinamikoa: 2028-2034 urte anitzeko finantza-esparrua»). Urte Anitzeko Finantza Esparruaren Erregelamenduak EBren lehentasunak finantzatzeko oinarrizko egitura eratzen du, Batzordearen komunikazio orokorrean ezartzen den bezala. Irizpenak orientabide politiko orokorrak jorratzen ditu, eta, bereziki, urte anitzeko finantza-esparruaren egiturarekin eta kudeaketarekin zerikusia duten gaiak. Eskualdeetako Lantaldeak eginkizun proaktiboa izaten jarraitu nahi du 2028-2034ko urte anitzeko finantza-esparruari buruzko negoziazioetan, baliabide propioen paketea barne, eta zaindu nahi du entzuten direla tokiko eta eskualdeetako erakundeek ikuspuntuak eta EBren aurrekontu-esparruaren definizioan erabat kontuan hartzen dela ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koehesioaren bultzada. Irizpen hori Eskualdeetako Lantaldeak legegintzako proposamen sektorialeiei buruz emandako beste irizpen batzuekin osatuko da geroago.

<https://cor.europa.eu/es/nuestro-trabajo/dictámenes/cdr-2839-2025>

- EBren ikuspegi estrategikoa Itsaso Beltzerako: tokiko eta eskualdeko dimentsioak.

Lan-dokumentu honen helburua da Eskualdeetako Lantaldean irizpen bat egiten laguntzea EBk Itsaso Beltzeko eskualdeari begira izango duen ikuspegi estrategikoaren tokiko eta eskualdeko dimentsioei buruz, honako hauek ardatz hartuta: tokiko eta eskualdeko erakundeek estrategiaren helburuak lortzen aktiboki lagun dezaketen funtsezko eremuak zehaztea, EBren eta Itsaso Beltzeko eskualdearen arteko etorkizuneko lankidetzaren hiru zutabeekin bat etorriz; tokiko eta eskualdeko erakundeak Itsaso Beltzeko plangintzan, politiken diseinuan, gobernantzan eta ikuspegi estrategikoa aplikatzeko egituretan integratzeko moduak proposatzea; tokiko eta eskualdeko erakundeek Itsaso Beltzerako ikuspegi estrategikoa aplikatzeko egokiak diren finantzaketa-tresnetarako sarbidea izatea bermatzea; Eskualdeetako Lantaldeak berdinen arteko ikaskuntza, ezagutzen trukaketa eta EBko estatu kideen, Ekialdeko Elkartearen eta Turkiaren arteko lankidetzak praktikoa errazteko duen zeregina indartzea.

<https://webapi2016.cor.europa.eu/v1/documents/cor-2025-02757-00-01-dt-tra-es.docx/content>

- Erresilientzia hidrikorako tokiko eta eskualdeko ibilbide-orria.



Erresilientzia hidrikoa funtsezko lehentasun bihurtu da Europan. Batzordeak helburu gakoak zehaztu ditu, hala nola uraren zikloa lehengoratzeko, uraren erabileran ekonomia adimenduna sustatzea eta ur garbiaren sarbide unibertsala bermatzea. Europako Erresilientzia Hidrikoaren Estrategiak, ekainaren 4an argitaratuak, klima-erronkei aurre egiteko baliabide hidrikoen kudeaketa jasangarria behar dela nabarmentzen du, digitalizazioa eta berrikuntza bezalako arloetan zeharkako ekintzak babestuz. Eskualdeetako Lantaldeak uraren agendan lagundu zuen iaz. Horretarako, arriskuen kudeaketa eta gobernantza hobearen alde egiten zuten, eta, aldi berean, nekazaritzari eta azpiegitura hidrikoei buruzko kezkei heltzen zieten irizpenak sustatu zituen.

<https://webapi2016.cor.europa.eu/v1/documents/cor-2025-02276-00-00-dt-tra-en.docx/content>

ARGITALPENAK

- *Documentación Administrativa*. Nueva Época. 14. zenbakia (2025eko ekaina).

DOI: <https://doi.org/10.24965/da.14.2025>

Gestión y Análisis de Políticas Públicas aldizkaria. Nueva época. 38. zenbakia (2025eko uztaila).



DOI: <https://doi.org/10.24965/gapp.38.2025>

- CARTA LOCAL, 393. ZK., URRIA. FEMP.

<http://femp.femp.es/files/842-414-fichero/CARTA%20LOCAL%20OCTU-BRE%202025%20N393.pdf>



- Cómo mejorar la contratación pública local: del marco normativo a la práctica tecnológica pasando por el eje de las Diputaciones Provinciales. Claves de bóveda para la modernización

M^a Concepción Campos Acuña, Manuel J. García Rodríguez

Urtea: 2025

Informazio gehiago: <https://www.cemci.org/publicaciones/como-mejorar-la-contratacion-publica-local-del-marco-normativo-a-la-practica-tecnologicapasando-por-el-eje-de-las-diputaciones-provinciales-claves-de-boveda-para-la-modernizacion>

DEIALDI INTERESGARRIAK

- Tokiko ogasunen erronkak aro digitalean. 2025eko azaroaren 19tik 21era, Bartzelona Estatu osoko toki-erakundeetako eta zerga-kudeaketako organismoetako zuzendari eta teknikarien topaleku bihurtu da. Ágora Topaketaren V. edizioa tokiko zerga-kudeaketaren erronka berriei aurre egiteko ideia, esperientzia eta proiektuak batzeko asmoz sortu da. Espazio ireki bat da, partekatzeko, ikasteko eta elkarrekin administrazio azkarrago, gardenago eta hurbilago bat lortzeko.

Informazio gehiago: <https://www.diba.cat/es/web/agora>



- Kontratazio Publikoaren Behatokiaren VII. Kongresua, 2025.

Urriaren 29tik 31ra Zaragozako Unibertsitateko paraninfoko areto nagusian Kontratazio Publikoaren Behatokiaren IIV. Kongresua egingo da.

Informazio gehiago:

https://www.obcp.es/sites/default/files/2025-10/pro-grama_VII_OBCP_V16.pdf?_gl=1*hs7hfz*_up*MQ..*_ga*MTc3MjU2MDYzNy4xNzY-wOTU0NjI4*_ga_BW6FG47YJ7*czE3NjA5NTQ2MjckbzEkZzAkdDE3NjA5NTQ2MjckajYw-JGwwJGgw